

ENEKO BIDEGAIN

Gerla Handia, muga sakona

Lehen Gerla Mundialaren
(1914-1918) hastapenak
Eskualduna eta Euzkadi
aldizkarietan



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

© Eneko Bidegain Aire

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2009ko azaroa

ISBN: 978-84-937213-3-6

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A

Azalaren diseinua: Raphaële de Gorostarzu

Azaleko argazkia: Jean Darricau

UTRIUSQUE VASCONIAE – Ategorrieta

Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel. 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

Banatzailea: BITARTE – 31195 Berriozar

(Nafarroa). Tel. 948-302239

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

AITZIN SOLASA

XX mendea bortizki hasi zen, eta bortitza izan zen. Hastapen bortitz hura markatu zuen gertakaria Lehen Gerla Mundiala edo Gerla Handia izan zen. Berriki, gerla haren bukaeraren 90. urteurrena anitz aipatu eta ospatu zen, hain zuzen, 2008ko azaroaren 11 inguruan. Gerlaren hastapenaren mendeurrenaren ospakizunen aitzin-gustubat, hain segur. 2014ean beteko dira ehun urte, Europa osoan sua piztu zenetik, milioika lagun hil ziren gudu lazgarria hasi zenetik.

Euskal Herrian ere eragin handia ukan zuen, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako herritar anitz eta anitz gerlara joan zirelako, eta haietarik andana bat hil zelako. Euskal Herria zatitzen duen mugaren –bereziki muga psikologikoaren– eraikuntzan biziki gertakari garrantzitsua izan zen, Hego Euskal Herrian abertzaletasuna eta independentziaren aldarrikapena garatu ziren garai berean, Ipar Euskal Herriko jendea frantses sentiarazte bidean urrats handiak egin baitziren, gerla haren ondorioz.

Lan xume honek mugaz bi aldeetako bi aldizkari hartu ditu, errealitate hori nola islatzen zuten ikertzeko. Ipar Euskal Herriko *Eskualduna* astekaria eta Hego Euskal Herriko *Euzkadi* egunkaria irakurritz, gerla haren lehen hilabetei buruz nolako iritzia zuten azalduko dute hurrengo orrialdeek. Garai biziki garrantzitsua zen, Euskal Herriko azken mendeko egoera politiko asimetrikoa ulertzeko.

1. Mundua gerlan

Lehen Gerla Mundiala (1914-1918) gertakari biziki larria izan zen Europa eta mundu osoarentzat. Ondorio biziki larriak utzi zituen. Stéphane Audoin-Rouzeau eta Annette Becker historialarien arabera, Europarentzat eta munduarentzat «katas-trofeen aroa ireki zuen»¹. Europar kontinentean hasirik, munduko enfrentamendu ikaragarri bihurtu zen, militarri, ekonomikoki eta ideologi-koki. «La guerre est mondiale: il n'est guère de ter-ritoire qui n'ait été touché»².

Gerlak Euskal Herria ere hunki zuen, azkarki. 1914ko euskal aldizkariak gerlaz artikulu anitz idatzi zuten. Konkretuki, Ipar Euskal Herriko *Es-kualduna* astekaria eta Hego Euskal Herriko *Euz-kadi* egunkaria dira liburuxka honetan aztertuko direnak. Gerla horretaz eta Euskal Herriaz zuten ikuspegia zinez kontrajarria zela argi gelditzen da, azterketa egin ondotik, liburuxka honek erakus-tera eman nahi duen bezala. XX mendeko eta gaurko Euskal Herria ulertzeko ezinbesteko giltza da Lehen Gerla Mundiala; eta giltza horren zati bat eskaintzen du bi aldizkari horien ikerketak.

Lehen Gerla Mundiala edo Gerla Handia ize-narekin ezagun egin zen gerla 1914ko agorrileko lehen egunetan lehertu zen. Agorrilaren 1ean, gi-zonen mobilizazio orokorra izan zen Alemanian eta Frantzian, eta Alemaniak gerla deklaratu zion Errusiari. Agorrilaren 2an, Alemaniako tropak

Belgika herrialde neutroaren lurretan sartu ziren. Agorrilaren 3an, Alemaniak gerla deklaratu zion Frantziari eta biharamunean Erresuma Batuak deklaratu zion gerla Alemaniari.

Stephane Audoin-Rouzeau eta Annette Becker Peronne taldeko historialariek diote 1914ko gerlaren zergatien galdera «izugarri konplexua» dela eta «misterio puntu» bat badela Europako potentziak gerlan lerratzeko arrazoiak bilatzean. Europako herrialdeen artean giro gatazkatsu bat edo gatazka beldur bat bazela azaltzen dute: «Les Russes et les Français craignaient la puissance allemande et les Allemands se croyaient encerclés de toutes parts par les Français, les Russes et les Anglais, isolés en dépit de leur alliance avec l'Autriche-Hongrie».

Alde batean ziren Frantzia, Ingalaterra eta Errusia, Elkargo Hirukoitza aliantzaren baitan biltzen zirenak; beste aldean ziren Alemania, Austria-Hungaria eta Italia, Aliantza Hirukoitza multzoan biltzen zirenak.

Frantziaren eta Alemaniaren arteko tentsioak batetik, eta Ingalaterraren eta Alemaniaren artekoak bestetik, gerla lehertzeko osagaiak izan zitezkeen, nahiz eta ez zen zuzenean tentsio horiengatik lehertu. Frantziaren eta Alemaniaren arteko krisiak izan ziren Marokoren kontrolaren inguruan, 1905ean eta 1911n, eta krisia horien ondorioz, tentsioek segitzen zuten. Ingalaterraren eta Alemaniaren arteko lehia bizia zen, industria potentzia handiena izan nahi zutelako biek.

Marc Ferroren³ arabera, Alemaniak mende-
baldeko Europako beste herriengan zuen «beranta
ekonomiko ikaragarria berreskuratu» behar zuen.
Bestetik, Frantziak eta Ingalaterrak Asian eta Afri-
kan gaindi koloniak bazituzten, baina Alemaniak
ez zuen ia koloniarik eta ez zuen eragin handirik
ukaitea espero.

Bestetik, Frantziaren partetik, Alsace-Lorraine
eskualdea berreskuratzeko borondatea ere izan
zitekeen. XIX mendean Frantziaren eta Alemania-
ren arteko gerlak izan ziren, eta 1870ean, Alema-
niak Frantziari Alsace-Lorraine eskualdea kendu
zion. Alemanek, aldiz, Prusia zaharraren hegemo-
nia inposatu nahi zioten Frantziari eta Errusiari,
Ferroren arabera. Frantzia eta Ingalaterrak, gaine-
ra, ez zuten begi onez ikusten Alemaniak indarra
har zezan, beldurrez eta horrek bigarren mailako
potentzien mailara apal araziko zituela.

Herrialde bakoitzak ondoko herrialdea etsai
gisa ikusten zuen, eta mezu hori zabaltzen zen
egunkarietan, Ferrok argitzen duenez. Herrialde
bakoitzak bere aberria sutsu defendatu nahi zuen,
gerla abertzale gisa aurkeztu zen. Bakoitzak uste
zuen bestea garaituko zuela.

Baina gerla lehertu zuen «pindarra», Saraje-
von izan zen, 1914ko ekainaren 28an. Serbiar
batzuek Austriako enperadore izan beharra zen
François-Ferdinand artxidukea eta haren emaztea
tiroz hil zituzten. Stéphane Audoin-Rouzeau eta
Annette Becker-re arabera, Austria-Hungariak
aukera hori baliatu nahi izan zuen Serbiarekin

bukatzeko, eta Serbia inbaditzeko. Marc Ferroren arabera, Alemaniak Austria-Hungaria Serbia inbaditzera bultzatu zuen, eta Austria-Hungariak ez zion Alemaniaren ordenari buru egin.

Alemaniak uste zuen gerla laster bukatuko zela eta laster irabaziko zuela. Ez zuen uste Ingalaterra gerlan sartuko zenik, haren jarrera bakezalea zela medio. Marc Ferrok Ingalaterraren jarrera bakezaleari egozten dio, hein batez, Alemaniak gerlan sartzeko ausardia hartzea. Haren ustez, Ingalaterra irmoago agertu balitz, beharbada Alemaniak ez zuen Austria-Hungaria Serbiari erasotzera bultzatuko eta neurri eztiagoak hartuko zituen.

Austria-Hungariak Serbiari gerla deklaratu zion uztailaren 28an. Ondorioz, Balkanetako herrien adiskide Errusiak mobilizazioa deitu zuen eta Austria-Hungariaren kontra gerlan sartu zen. Alemaniak, bere aliatu Austria-Hungaria laguntzeko, Errusiari gerla deklaratu zion. Aliantzen kateak Frantzia eta Ingalaterra ere gerlan sartzera eragin zuen.

Gerlako buruzagiek gerla laburra espero zuten. Herri bakoitzak aste guti barne irabaztea espero zuen, Marc Ferroren arabera. Gerla bultzatu zutenek ez zuten espero gerla hainbeste zabalduko zela, ez zuten uste mundiala izanen zela, Ferroren arabera. Baina azkenean uste baino gehiago zabaldu zen, eta anitz konplikatu.

2. Pindar bat

1914eko uztailaren 23an, Austria-Hungariak ultimatuma ezarri zion Serbiari, Sarajevoko atentatutik landa. Balkanetako gatazka egoera bi urte lehenago sortua zen. Serbiaren eta Bulgariaren inguruan, maiz gertatzer zen gerla Errusiaren eta Austriaren artean, baina Alemaniak Austriari gerlan ez hasteko erraten zion, eta gauza bera Frantziak Errusiari. 1914ean ez zen horrelakorik gertatu.

Alemaniak uste zuen une egokian zegoela Serbiaren, Errusiaren eta Frantziaren kontra borrokatzeko, eta horregatik bultzatu zuen Austria-Hungaria Serbiari eraso egitera. Alemaniaren ustez, armamenduz anitzez azkarrago zen, eta gerla irabazteko aukerak zituen.

Uztailaren 28an, Austria-Hungariak gerla deklaratu zion Serbiari, eta haren armadak Belgrad eraso zuen. Uztailaren 30ean, Errusian mobilizazio orokorra egin zuten. Ondoko gauean berean, Austria-Hungariak ere gauza bera egin zuen: mobilizazio orokorra.

Uztailaren 31n, nazionalista batek, Jean Jaurès Frantziako lider sozialista eta bakezale gisa ezaguna zena hil zuen. Jaurès gerlaren kontra bazen ere, frantses nazioa arriskuan baldin bazegoen, gerlan hastearen alde mintzatua zen. Hilketa horrek, sinbolikoki, Europa gerlan sartzea markatu zuen.

Biharamunean, agorrilaren lehenean, Frantziak eta Alemaniak mobilizazio orokorrerako deia

egin zuten, eta Alemaniak Errusiari gerla deklaratu zion. Agorrilaren 2an, Alemaniako tropak Belgikan sartu ziren, nahiz eta Belgika herrialde neutrala zen. Belgikaren neutraltasuna urratzea gogor kritikatuko zioten hainbatek Alemaniari. Agorrilaren 3an, Alemaniak gerla deklaratu zion Frantziari. Agorrilaren 4ean, Erresuma Batuak gerla deklaratu zion Alemaniari.

Agorrilaren 19tik 23ra, frantses armadak Lorraine eskualdeko ofentsiban huts egin zuen. Egun bertsuetan, frantsesek eta ingelesek Charleroi eta Mons-eko batailak galdu zituzten, agorrilaren 22tik 24era. Agorrilaren 20ean, Alemaniako armada Bruselan sartu zen.

Irailaren 6tik 9ra, Marneko bataila iragan zen. Frantsesek tropa alemanak Paristik zenbait kilometrorra geldiarazi zituzten.

Azaroaren 1ean, Turkia gerlan sartu zen, Alemania eta Austria-Hungariaren aldean.

Abenduaren 8an, alemanen itsas-ontzi bat suntsitu zuten Falkland uharteetan.

Abenduaren 15ean, serbiarrek Belgrad berreskuratu zuten.

1915eko otsailaren 15etik martxoaren 18ra, Champagne-eko ofentsiba egin zuten frantsesek. Otsailaren 19an, aldiz, Konstantinopla aldean, Dardanelles itsas pasaiako operazioak hasi zituzten, aliatuek pasaia hori bereganatzeko.

Gerla Handiaren berezitasunetariko bat, lubakien bidezko gerla izan zen. Soldaduak, alde

batekoak eta bestekoak, parez pare ziren lubakietan zeuden, eta han egoten ziren egunak, tiroen artean edo bonben azpian hiltzeko arriskuaren erdian. Lehenbiziko asteetan, sekulako hil andana izan zen. Frantsesek 300.000 hil ukan zituzten 1914ean berean.

Gerla laburra izanen zela espero zuten denek, hastapenean. Alde bakoitzak uste zuen bestea berehala garaituko zuela. Stéphane Audoin-Rouzeau eta Annette Becker-ren arabera, Alemaniak uste zuen Frantzia sei astez garaituko zuela, eta gero Errusiari lotzeko indar gehiago ukanen zuela. Baina espero ez zutena zen Belgika inbaditu ondoan, belgikarrek ihardukiko zutela. Hala ere, Alemaniak Frantzia iparraldea konkistatu zuen lehen asteetan, eta Parisetik 50 kilometrora heldu zen: Marneko batailak geldiarazi zituen tropa alemanak.

Frantsesek alemanak geldiarazi bazituzten ere, ez zuten espero hainbesteko indarra ukanen zutenik haien etsaiek. Uste baino gogorrago izan zitzaizen Alemania garaitzea. Errusia aldean ere, Alemaniak zenbait garaipen lortu zituen. Hastapenean, Errusiarren ofentsiba bat jasan behar izan zuten, espero ez zutena; baina, gero, berriz hartu zuten gaina.

Gerla laburraren «mitoa» erori zen, beraz, 1914 bukaera aldera.

Ondoko urteak gorabeheratsuak izan ziren. 1915ean beste herrialde batzuk sartu ziren gerlan. Italia, hastapenean Austria-Hungariaren eta

Alemaniarren aliatua zena, Elkargo Hirukoitzarekin batera sartu zen gerlan, maiatzaren 23an. Urriaren 5ean, Bulgaria Alemaniaren eta Austria-Hungariaren ondoan hasi zen gerlan, eta hiru indarrek elkarrekin, Serbiaren kontrako ofentsiba hasi zuten, biharamunean.

1916an, Alemaniak gerla deklaratu zion Portugalari, martxoaren 9an. Agorrilaren 20ean, Errumania Elkargo Hirukoitzari juntatu zitzaion, gerlan sartzeko. 1917ko apirilaren 2an, Amerikako Estatu Batuak gerlan sartu ziren, Elkargo Hirukoitzaren aldean. Ekainaren 29an, Greziaren aldi izan zen.

1917a urte nahasia izan zen. Frantziako armadan desobedientzia kolektiboak hasi ziren. Errusian bi iraultza izan ziren, eta urriko iraultzak Boltxebikeak, Lenin buru, boterera ekarri zituen, Sobietar Batasuna sortuz. 1918ko martxoaren 3an, sobietarrek eta alemanek bakea izenpetu zuten, Brest-Litovsk-en.

1918an, Alemaniako armadak hainbat ofentsiba egin zituen Frantzian, hala nola Picardie eskualdean eta Champagne eskualdean. Paris ere bonbardatzen hasi ziren, martxoaren 23an. Baina ekainetik aitzina, amerikarrek, frantsesek eta ingelesak hainbat kontra-ofentsiba hasi zituzten. Azaroaren 11n, armistizioa izenpetu zuten.

3. Euskaldunak gerlara deituak

Frantzia gerlan sartu zenean, eta mobilizazio orokorrerako deia egin zuenean, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako euskaldunak ere gerlara deituak izan ziren, beste guziak bezala. 45 urtez beherako gizon guziak gerlara deituak izan ziren. *Le Journal de Saint-Palais* astekariak ederki deskribatu zuen mobilizazio hori:

Semaine de deuil, semaine de larme qui hélas!
sera suivie de bien d'autres.

Ils sont partis nos fils, nos amis, tous ceux que nous aimions! Et pendant des semaines, des mois nous resterons dans l'anxiété sans nouvelles de ces êtres si chers.

Les foyers sont devenus déserts, la campagne n'a plus de bras, la vie industrielle et commerciale est arrêtée, c'est la morne tristesse qui règne lugubre sur tout notre pays.

Seule la jeunesse, qui de sang-froid va s'exposer à la mort, traverse souriante la France endeuillée. Les chants du soldat, accompagnés du crépitement de la fusillade, résonnent sur toute notre frontière menacée. Ils sont là, tous, prêts à faire leur devoir, prêts à donner leur sang pour leur patrie...

[...] Un sujet, s'il en fut, qui prêterait à développements patriotiques serait celui du spectacle des départs de nos soldats vers la frontière! Il fut grandiose, inoubliable et arrachant des larmes en même temps qu'il provoquait des sentiments des plus vibrant et du plus pur enthousiasme!

[...] Et ces hommes de foi, dont l'âge oscillait entre 21 et 48 ans conclurent la paix avec Dieu avant d'entamer la lutte à mort contre les plus infâmes adversaires qu'ait jamais supportés notre surface terrestre abusivement hospitalière!

A la gare, femmes, vieillards, enfants, dévoraient silencieusement des larmes qu'adouçissait l'espoir indéfectible et radieux des revanches impitoyables ardamment soupirées depuis 44 mortelles années d'infériorité cuisante et de vasselage exaspérant!

Mais le Français, s'il est Basque surtout, n'accomplira aucun acte de la vie, sans le saupoudrer d'un sel humoristique, un peu gros souvent, mais jamais banal!

[...] Tous les enfants des Ecoles Saint-Palaisiennes étaient-ils là? J'ai cru le constater et je m'en réjouis, car ils ne recevront jamais leçon si frappante de patriotisme qui leur fera mépriser, à juste titre, les ouvrages souillés de pacifisme béat et lâche, s'il s'en trouve.

[...] Au Pays-Basque, ces métamorphoses furent rares, la plupart de nos chers défenseurs de la patrie n'ayant à réaliser que des efforts modestes de mentalité, de coeur, ou physiques, pour correspondre, sans restrictions, aux qualités remarquables exigées d'un irréprochable soldat français!

[...] Ce cher Pays-Basque brillera encore, d'un éclat particulier, parmi toutes les autres régions, par le nombre, toutes proportions gardées, et la qualité de ses héros!

Vive la France! Biba *Eskualdunak!*

Euskaldunak gerlara joan ziren, eta horrek tristura handia eragin zuen, herriak hustu baitziren, aktibitate guztia gelditu baitzen. *Le Journal de Saint-Palais* astekariak ongi azaldu zuen gizon guztiak gerlara joateak eragiten zuen atsekabea. Haatik, artikulu horretan ongi adierazi zuen euskal soldaduak motibatuak zirela, Frantziaren alde odola emateko. Erakustera eman zuen zein zintzoak ziren, zein obedientak. Erakutsi nahi zuen ere, zein soldadu onak izanzen ziren.

Euskaldun anitz hil zen gerlan, eta lehen asteetatik beretik heltzen ziren gerlan hil edo zauritu zirenen berriak.

Euskaldunak irria ezpainetan gerlara joaten zirela adieraztea, garai hartako ikuspegi orokorra-ekin bat zetorren. Batetik, gerla laburra espero zenez, laster berriz etxera itzuliko zirelako itxaropena sartua zitzaien.

Gerlara joateko gogo horrek bazuen beste esplikazio bat ere, Marc Ferroren arabera. Armadan sartzeak eta gerla egiteak, baserri munduko gizon haiei guztiei, ez gehiago «bigarren mailako herri-tar» izateko ustea emanen zien. Halaber, abentura batean hasten ziren, are gehiago, airez aire irabaztea espero bazuten: inoiz ez zuten trenik hartu, inoiz ez zuten hiri handia ikusi. Marc Ferro orokortasunean mintzo da, baina euskaldunek ere, baserri zolan bizi izanez, mundura joateko parada ukan zuten.

Bestetik, Frantziaren mugak defendatzeko behar patriotikoa errotu zuten soldaduen baitan.

Hots, Frantzia arriskuan zen, Alemaniak gerla deklaratu ziolako, baina, gainera, 1870ean Alemaniaren kontra galdu eta Alsace-Lorraine eskualdeak alemani utzi ondoan, mendekuaren mementoa zela ere ikusten zuten. Frantses aberriaren kinka txar horren inguruan, batasun sakratu bat sortu zen, ordu arteko zatiketak eta kalapita politiko edota erlijioso gogorrak estali zituena. *Le Journal de Saint-Palais* astekariak, *Eskualduna*-k bezala, batasun hori goraiatu zuen. Historialariek ere batasun hura azpimarratu zuten. Euskal Herria ez zen batasun patriotiko hartarik aparte egon.

Mobilizazioak eta Frantziaren alde gerla egitearen gibelean zegoen frantses nazionalismoak, Euskal Herrian ere ukan zuen eragina, *Le Journal de Saint-Palais*-ko artikulu horretan ageri den bezala, bereziki eskoletako haurren aipamena egiten zuenean. Astekari horrek erakusten zuen euskaldunek frantses on izan behar zutela, eta frantses aberria maitatu behar zutela.

1914ean piztu zen gerlak, eragin biziki handia izan zuen Ipar Euskal Herriko euskaldunak oraino frantsesago sentiarazte bidean eta frantses nazioaren eraikuntzan.

4. Espainiaren neutraltasuna

Hego Euskal Herriko *Euzkadi* egunkariaren azterketa hobeki ulertzeko, komeni da aipatzea Espainia neutral agertu zela Lehen Gerla Mundiala lehertu zenean. Espainiak ez zuen ez Triple Entente (Frantzia, Erresuma Batua eta Errusia) aliantzaren alde ez Aliantza Hirukoitzaren (Alemania, Austria-Hungaria eta Italia) alde egin.

Ramon Menendez Pidal-ek hola azaldu zuen Espainiaren neutraltasuna⁴: «El peculiar *regeneracionismo* de Alfonso XIII, afanado ante todo *en buscar un lugar bajo el sol* a la alicaída España que acababa de experimentar el desgarrón traumático de 1898, hubo de adecuarse a la realidad: su gira de 1913 le había convencido de que en la tensión entre los dos potentes bloques armados –la Entente y la Triple Alianza– España no podía deducir ningún beneficio, aun ofreciendo su cooperación a unos u otros.»

Espainiaren neutral izatearen arrazoia, beraz, gerla horretan baten ala bestearen alde izateko interesik ez zeukala zen. *Euzkadi* egunkariarentzat ere, neutraltasun hori beharrezkoa zen, kasu honetan Euskal Herriak ez zuelako interesik baten ala bestearen alde agertuz. Espainiaren neutraltasunaren erabakiak garrantzia handia zuen Euskal Herriarentzat.

Baziren ere Espainiaren indar militarren mugak ikusten zituztenak. Marokon irabaztea ez

bazuten lortzen, horrelako gerla handiago batean oraino zailtasun handiagoak izanen zituztela uste zuten, bai ekonomikoki, bai militarki. Ahulezia horrek eta Marokoko esperientzia gogorrak ere esplikatzen zuen Espainiaren neutraltasuna.

Espainia neutral agertzeak bazukeen beste arrazoi bat ere, Menendez Pidak argitzen duenaren arabera, eta baita *Eskualduna*-k ere komentatu izan zuenaren arabera: Espainiako Erregearen ama austriarra zen, eta emaztea aldiz, ingelesa. Amaren herrikoak emaztearen herrikoaren kontra ari ziren borrokan. Hori zela eta, Menendez Pidalen ustez, «neutraltasunak esanahi berezia zuen».

Espainiako politikari batzuek neutraltasunaren aldeko hautua defendatzen zuten, bakea egiteko garaian, Espainiak bake konferentzia baten antolatzeko zilegitasuna izanen zuelakoan.

Baina bakea egiteko garaian, Espainia baztertua izanen zela uste zuenik ere bazen. Frantziatik beretik Espainiaren neutraltasunaren kritikak agertu zirela aipatzen du Menendez Pidak, hain zuzen, Louis Charles de Freycenet frantziar diplomatuak idatzi gutun baten zatia erreproduzituraz: «Sans bouger, sans faire un geste, l'Espagne, pour le seul fait de n'avoir pas coopéré à la grande oeuvre qui s'accomplit, se trouvera dans l'avenir abaissée, dans une Europe qui vivra pendant longtemps des souvenirs de l'heure présente». Espainia Europa berriaren eraikitze prozesutik bazter egon zitekeela dio.

Baina Espainian berean denak ez ziren neutraltasunaren alde. Batzuk Elkargo Hirukoitzaren

alde ziren eta beste batzuk Aliantza Hirukoitzaren alde. *Diario Universal* egunkariak agorrilaren 14ean argitaratu zuen editorialean, neutraltasunaren kontra eta Elkargo Hirukoitzaren alde izan behar zela idatzi zuen, Menendez Pidal-ek laburbilduaren arabera: «Se titulaba, muy significativamente, *Neutralidades que matan*, y en sus párrafos mas sustantivos decía así: «España, aunque se proclame otra cosa desde la Gaceta, esta, por fatalidades económicas y geográficas, dentro de la órbita de atracción de la Triple inteligencia: Francia, Inglaterra y Rusia; al asegurar lo contrario es cerrar los ojos a la evidencia. España, además, no puede ser neutral, porque, llegado el momento decisivo, la obligarán a dejar de serlo. Si triunfa el interes germánico, se mostrará agradecido a nuestra neutralidad? Seguramente no. La gratitud es una palabra que no tiene sentido cuando se trata de interes de la naciones... Por el contrario, si fuese vencida Alemania, los vencedores nada tendrían que agradecer».

Frantziaren, Ingalaterraren eta Errusiaren alde jartzearen aldeko jarrera horretan ikusten da interes ekonomiko eta geografikoa. Hurbiltasun horregatik baizik ez bazen ere, batzuen ustez, Espainiak jarrera bat hartu behar zuen. Hori izanzen zen *Euzkadi*-k ere maiz defendatuko zuen postura.

Denak ez ziren, ordea, postura horretan. Batzuk Alemaniarekin eta Austria-Hungariarekin bat egitearen alde ziren. Karlistak ziren, gehien bat, postura horretakoak. Frantziaren laikotasuna eta errepublikazetasuna kritikatzeko zuten, oroz

gainetik, eta horregatik egin zuten besteen aldeko
hautua.

5. Euskal Herriko idazleak

Euskal Herrian baziren idazleak, gerla garaian. Eta batzuek zer edo zer idatzi zuten Gerla Handiaz. Hegoaldekoa izan ala Iparraldekoa, aldatzen zen; lehenbizikoek guti idazten zuten, oro har, eta bigarrenak anitzez gehiago. Gerlaz idatzi zutenak, gehienetan, egunkari eta aldizkarietan idatzi zutenak ziren. Garai hartan bazen aldizkari eta egunkari franko, gehienak espainolez edo frantsesez idatziak, baina baziren euskara hutsezko bakar batzuk, edo elebidun batzuk, besteak beste *Eskualduna* Ipar Euskal Herriko astekaria eta *Euzkadi* Hego Euskal Herriko egunkaria.

Hego Euskal Herriko idazleetan, aipagarriena Ebaristo Bustintza *Kirikiño* da. Mañarian (Bizkaia) sortu zen 1866an, eta han hil 1929an. Matematika eta fisikako lizentziadun gisa, irakasle izan zen lehenik, eta geroago Azkueren hiztegian lagundu zuen. 1913an *Euzkadi* egunkariko euskal ataleko ardura-dun izan zen. *Euzkadi* egunkarian idazten zuen, eta gerlari buruzko kronikak ere idatzi zituen.

Egunkari hartan berean kolaboratzen zuen Juan Bautista Bilbao *Batxi* ere gerlaz idatzi zutenarik bat da. Arratzun (Bizkaia) sortu zen eta Bizkaiko itsasoan hil, Lehen Gerla Mundialeko itsas mina batek jorik. Ofizioz marinela zen, eta bere bidaien kronika anitz idatzi zuen *Euzkadi* egunkarian. Kronika horietan, gerlako berri ere eman zuen.

Pablo Fermin Irigarai *Larreko* idazleak ere zenbait testu idatzi zituen gerlaz. Auritzen (Nafarroa) sortu zen 1869an eta Iruñean hil 1949an. Medikuntza ikasi zuen, eta mediku ibili ondoan, Iruñeko ospitaleko zuzendari bilakatu zen. Euskal aldizkarietan parte hartu zuen, besteak beste *Napartarra* aldizkarian, *Euzkadi*-n edota *Gure Herria* aldizkarian. *Lekukotasuna*⁵ liburuan, Ipar Euskal Herriko gerlariei buruzko artikulu batzuk ageri dira.

Manex Hiriart-Urruti gerla hasi eta aski fite hil zen, baina hil artean, gerlaz artikulu batzuk idatzi zituen. Hazparnen sortu zen 1859an, eta Baionan hil 1915ean, 56 urte zituela. Lehenik apez eta gero kalonje izendatu zuten. *Eskualduna* astekariaren sortzaileetariko bat izan zen, eta haren artikuluak astekari hartan agertu ziren.

Jean Elissalde *Zerbitzari* gerlan ibili zen, eta gerlako berriak igortzen zituen *Eskualduna*-ra, frentetik. Azkainen sortu zen 1883an, eta Lekornen hil 1961ean. Gerla lehertu zenean oraino franko gaztea zen, baina geroztik anitz idatzi zuen, bai *Eskualduna*-n, bai *Eskualdun Ona*-n, bai *Gure Herria*-n edota, geroago, *Herria*-n. Gerlako kronikak liburu batean bildu zituen Patri Urkizuk: *LVIIa gerlan*⁶.

Jean Etchepare Aldudeko medikuak ere gerla bizi izan zuen. Argentinan sortu zen, 1877an, Mar Chiquitan, baina gazterik joan zen Euskal Herrira, bere familiarekin. Kanbon hil zen 1935ean. *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkarietan idatzi

zuen. Mediku gisa, gerlan zaurituak artatzen ibiltzen zen.

Jean Saint-Pierre *Anxuberro* gerlara joan zen 1914ean, eta 1918an zauritu eta alemanen preso izan zen, gerla bukatu arte. Milafrangan sortu zen 1884ean, eta han hil 1951an. Gerlara igorri zute-nean, *Eskualduna* astekaritik gerlako berri emateko eskatu zioten, eta artikuluak idatzi zituen. Kazetari gisa, *Gure Herria* aldizkariko zuzendari eta *Eskualduna* astekariko erredaktore nagusi izan zen. Elizgizon gisa, apez izan zen lehenik, Baionako katedraleko kalonje gero, eta Gordus-eko apezpiku azkenik. Gerla denboran idatzi artikuluak liburu batean bilduak dira: *14eko Gerla Handia*⁷.

Jules Moulier *Oxobi* (Bidarra, Baxenabarre, 1888 – Hiriburu, Lapurdi, 1958) ez zen gerlan ibili. Osagarri arazoak zirela medio, Hiriburuko apezlagun izaten segitu zuen. Oroz gainera, olerkiak eta bertsoak idatzi zituen eta *Eskualduna* astekarian argitaratu. *Eskualduna* astekarian gerlari buruzko zenbait bertso argitaratu zituen, 1914ean berean. Geroago, Manex Hiriart-Urruty *Eskualduna*-ko zuzendaria hil ondoan, Oxobik hartu zuen haren kargua. Gerlaz idaztea gertatu zitzaion, nahiz eta artikuluak ez izenpetu.

Jean Barbier ere gerlaz idatzi zuen euskal idazle bat zen. Donibane Garazin sortu zen 1875ean eta Senperen hil 1931n. Apezturik, *Eskualduna* astekarian parte hartu zuen. Halaber, olerkiak, ipuinak eta nobela bat idatzi zituen. *Piarres* nobelaren⁸ bigarren zatian, gerla anitz aipatu zuen. Euskaldunei

buruzko eleberria da, eta bigarren zatian euskaldunak gerlan eta euskal soldaduak aipatzen ditu⁹.

XX mende hastapenean aldizkari eta egunkari franko bazen Euskal Herrian. Lan honek bereziki Iparraldeko *Eskualduna* astekaria eta Hegoaldeko *Euzkadi* egunkaria aztertzen baditu ere, beste batzuk ere izan ziren.

Hego Euskal Herrian argitaratzen ziren aldizkarien artean, batetik *Euskal-Erria* bazen. 1880tik 1918ra bitartean argitaratu zen, Donostian.

Euskalherriaren alde aldizkaria bi astetik behin argitaratzen zen. Kultura aldizkari bat zen, Donostian argitaratua, 1911 eta 1931 bitartean. Aldizkari kulturala zen aldetik, ez zuen gerlaz biziki idatzi. Gerlari buruzko lehen artikulua 1914ko azaroaren 30ekoa da:

Compasion! Pobres soldados franceses, alemanes, belgas, ingeleses...!

Hay vascos arrancados de sus caserios y llevados al campo de batalla a matar y morir...

Y aunque la Revista *Euskalherriaren Alde* no tiene por que narrar incidencias de esta lucha brutal, [...] recogeremos noticias, relaciones y anécdotas que sirvan para dar el relieve debido a la figure del soldado vasco.

Hurrengo zenbakietan segitu zuen artikulua horren haria, *Euskalherriaren Alde* aldizkariak.

Aldizkari horrek euskal literatura eta linguistika atala ere bazuen: *Euskal-Esnalea*.

Nafarroan, *Napartarra* aldizkari jeltzalea argitaratzen zen, 1911 eta 1918 bitartean. Gerlari buruzko zenbait artikulua argitaratzen zituen, aldizkari horretako kolaboratzaileek idatziak edota *Euzkadi* egunkaritik hartuak.

Iruñean beste aldizkari bat ere sortu zen 1913an: *Irugarrengo Prantzisko'tarra* aldizkaria 1935 arte argitaratu zen.

Erljioari lotu beste aldizkari batzuk ere baziren, hala nola *Jaungoiko-zale*, Zornotzan argitaratzen zena, 1912 eta 1932 bitartean.

Ipar Euskal Herrian *Le Journal de Saint-Palais* astekaria bazen, Amikuze eta Maule eskualdeetan banatzen zena. 1884ean sortu zen, eta oraino ere argitaratzen da. Astekari horrek gerlako berri ematen zuen, lehenago aipatu bezala.

Baionan beste astekari bat ere argitaratzen zen: *Le Pays Basque – Eskual-Herria* astekaria errepublikarren aldizkaria zen, 1898an sortu zena.

Eta ezin aipatu gabe utzi, *Eskualduna* astekariaren kontrario handiena izan zen Baionako *Le Réveil basque* aldizkaria, gorriek argitaratzen zutena.

6. *Eskualduna* astekaria

Eskualduna astekaria zen gaur egun oraino argitaratzen den *Herria* astekariaren arbasoa. Ipar Euskal Herriko etxe anitzetan zabaltzen zen astekaria zen, apezengandik arras hurbila. Gerla hasi zenean, gerla solas betetzen zituen orri gehienak. Astekari hura 1887an sortu zuen Louis Etcheverry Donazarreko politikari bonapartista eta zuriak¹⁰.

Politika zurien eta gorrien artean arras zatitua zen, garai hartan. Zuriak, giristinoak, Frantzia laikoaren eta Errepublikaren kontrakoak ziren. Gorriak, aldiz, Errepublikaren aldekoak. Martial Henri Berdoly gorriak *Le Reveil Basque* aldizkaria sortu zuen, urte bat lehenago, hauteskunde xedearekin, beti ere. Hari erantzunez sortu zen, beraz, *Eskualduna*.

Manex Hiriart-Urruty 1891n hasi zen zuzendari gisa, *Eskualduna* astekarian. Astekaria 1.300 aletan saltzen zen. Hiriart-Urrutyk frantsesezko *La Semaine* astekarian idatzia zuen azken hauteskundeei buruz; horregatik joan zitzaion Louis Etcheverry, *Eskualduna*-ko zuzendari kargua hartzea galdetzerara. Hiriart-Urruty-k baieztatu erantzuna eman zion, «*fedearen eta libertatearen etsaiak* gudukatzeko nahiarekin»¹¹.

Javier Diaz Noci-k azaltzen duen bezala, *Eskualduna* «Baionako apezpikuen gidaritzapean egon zen, eta Hegoan ez bezala alderdi politiko

berezkorik ez zegoenez, astekaria izan zen euskaldun gehienen bilgune ideologikoa».

Ohar hori funtsezkoa da *Eskualduna*-ren eragina zein inportantea izan zitekeen ulertzeko. Astekari hori izan zen Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako euskaldun gehienengana heltzen zena eta, beraz, bere ideologia ere euskaldunen barnera heltzen zen. Halaber, Diaz Nocik dion bezala, apezpikuen gidaritzapean izanez, *Eskualduna* irakurriz ikusten da garai hartako apezek zer ideologia zabaltzen bide zuten beren herrietan eta mezetan. Horregatik, *Eskualduna*-ren edukiak ikertzeak interes bikoitza du: ez da mugatzen aldizkaria irakurtzen zutenengana heltzen zen mezuaren azterketara bakarrik; aldizkari horretan agertzen ziren mezuak, apezek bestela ere zabaltzen zituztela pentsa daitekeelako da bi aldiz interesgarri astekari horren edukien lantzea.

Diaz Noci-ren arabera, «*Eskualduna*-ren kazaritza eredia pobre samarra bazen (oso ideologikoa, irudi eskasak, erreportaje gutxi)». Erran daitekeena da, 1914ko artikuluak irakurriz, ukazina dela astekari «oso ideologikoa» zela. Erran daiteke ere, artikuluetan betelan anitz bazela, informazio bat eman aitzin, interes informatiborik ez zuten hitz eta esaldi franko bazela. Baina zuzenean gerlan parte hartzen zutenen testuak ere argitaratzen zituen *Eskualduna*-k. Testu horietan informazio bezainbat edo gehiago komentario bazen, baina, ildo ideologiko markatuak izanik ere, frentean gertatzen zenaren berri jakin zitekeen *Eskualduna* irakurriz.

Eskualduna lau orrialdeko astekari bat zen; orrialde handiak zituen, denak testuz beteak, batzuk ttipi-ttipiz idatziak. Gerla lehertu zenean, bi orritara mugatu zuen bere argitalpena. Gerla lehertu zeneko zenbakian esplikatu zien erabaki hori irakurleei, erranez berriak eskuratzea zaila izanzen zela, eta ez zuela beti orri guztiak betetzeko gairik izanzen. Hala ere, gerlako berri emateko engaiamendua hartu zuen, irakurleei esplikatu zien bezala:

Gerla hau delakotz eta hunek dirauno itzaltzekotan izanik *Eskualduna*, agertzen da oraino egun; eta gure chedea da, nehondik neholere ahal badugu, ez usteko hunen irakurtzaleak, noiz eta ere baitira izanzen berri gose eta egarrienik, hain chuchen orduan, deus jakin gabe, bazterretikako berriak baizik. Hek ere noiz eta nola? Jainkoak daki.

Guk ere bertzetarik jakinez beharko ditugu ba eman; eta noiz edo noiz –agian bakan eta egun laburrez!– berri gutirekin bagine, edo chuchenik, segurik batere gabe, laburtuko dugu kazeta, nola nahi, zertaz nahi betherik emanen dugun baino lehen.

Halere, lanak behar dauzkula eman zonbeit aldi ezin helduz, beldur gira; eta azken beltzean behar baginu ere, gure ahal guzia bertze lan zerbeit ezin utziagori eratchikitzeko, itzal-aldi bat egin luzechago, laburchago, eginen dugu eta hartuko duzue othoi hoberena¹².

Hor iragartzen zuten gerla denboran ez zuela ohiko formatua izanzen, baizik eta murriztua. Bi orrialdera jaitsi zuen *Eskualduna*-k bere orrialde

kopurua, gerla hasi zenean. Lehen orriko lehen artikuluak editorial funtzioa betetzen segitzen zuen, beste artikuluetan baino hizki handiagoz idatzirik. Artikulu hori beti gerlari buruz itzulia izaten zen, izan Euskal Herriari begira, izan nazioarteko gaiei begira, baina beti gerlari buruz.

Manex Hiriart-Urruty 1915ean hil zenez, 1914ko editorial haiek hark idatzi zituela erran daiteke, nahiz eta ez ziren inoiz izenpetuak. Hiriart-Urruty bat-batean hil ondoan, Blaise Ademak hartu zuen astekariaren zuzendaritza, eta Jules Moulier *Oxobi* Hiriburuko bikario gaztea *Eskualduna*-ko «isilpeko idazkari» bihurtu zen, «euskaltzale gazte gehienak gerran» baitziren¹³. «Gerra denboran eta hala beharrez esan daiteke, beraz, kazetari bilakatu zela *Oxobi*. Baina kazetari isila, izenik gabe agertzen ohi baitziren haren artikuluak».

Ondoko zutabeetan ere gerlako berri orokorrak ematen zituen *Eskualduna*-k, beti ere bere ideologiatik; artikulu gehien-gehienak euskaraz. Hastapeneko asteetan herrietako berrien saila azkarki murriztua zen, eta ziren berriak ere gerlari lotuak ziren: mobilizazioaren berri lehenik, hildako edo zauritutako herritarren berri geroago. Gerlan ziren euskal soldaduen kronikak ere argitaratu zituen *Eskualduna*-k, besteak beste Jean Elissalde *Zerbitzari*-renak¹⁴ edota Jean Saint-Pierre *Anxuberro*-renak¹⁵.

Gerla ia gai bakar gisa agertuz, gertakari hura Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako euskal gizartean zenbateraino sartua zen erakustera ematen du *Eskualduna*-ren azterketak.

7. *Euzkadi* egunkari jeltzalea

Lehen gerla mundial garaian, Euskal Herrian ziren aldizkari edo egunkarietatik bat zen *Euzkadi*. Eusko Alderdi Jeltzalea Sabino Aranak sortu euskal alderdi politiko abertzalearen ideologiari loturik hasi zen argitaratzen, 1913an, Bilbon. Hori baino lehen, Sabino Aranak berak *Bizkaitarra* eta *Baserritarra* aldizkaria sortu zituen; lehena 1894ean eta 1895ean argitaratu zen, eta bigarrena 1897an. Arana hil ondoan beste aldizkari jeltzale batzuk sortu ziren, hala nola *JEL* (1907-1908), *Bizkaitarra* (1903-1913), *Gipuzkoarra* (1908-1913), *Arabarra* (1912tik goiti) eta *Napartarra* (1911-1918). Aldizkari horiek guztiak *Euzkadi* sortu zelarik desagertu ziren, *Napartarra* salbu¹⁶.

Hala ere, *Napartarra* aldizkariaren eta *Euzkadi* egunkariaren arteko lotura bistakoa izan zen, *Napartarra* aldizkarian argitaratu artikulu batzuk *Euzkadi*-k berrargitaratzen baitzituen, eta alderantziz.

Javier Diaz Noci Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak zehaztu bezala, *Euzkadi* egunkari «politikoa baina informaziozkoa» zen eta «asmo ideologikoa eta komertziala batzen» zituen. Zati bat euskaraz zuen, eta beste zati handi bat gazteleraz. Lehen orriko lehen artikulua euskaraz idatzi ohi zituzten; gehienetan editorial gisako testu batekin. Gainerateko orrietan informazio hutsa ematen zuen, maiz agiri ofizialak errepikatuz. Lehen gerla mundialeko gertakarien iturri

nagusi gisa erabiltzen zituen estatu bakoitzeko gobernuetatik jin informazio ofizialak edo *dépêche* delakoak.

Euskarazko atalaren arduraduna Evaristo Bustintza *Kirikiño* zen, eta hark idazten zituen, gehienetan, lehen orriko editorial kutsuko artikulak. Javier Diaz Noci-k dionaren gisan, «euskara garbizalea –baina dotorea– erabili zuen eta herrietako informazio sare bat ehundu zuen».

Kirikiño idazle eta kazetari gisa ezaguna izan zen, baina bere «lanik handiena *Euzkadi* egunkarian egin zuen», Igone Etxebarriaren arabera¹⁷: «Egunkariaren atalen artean, 'Euskal Atala' zeritzanaren zuzendari jarri zuten Kirikiño hasieratik. Ordutik hasi eta, 1928an utzi zuen arte, egunero egunero argitaratu zituen bere lanak, eta beste askorenak zuzendu».

Kirikiñok Lehen Gerla mundiala aipatu zuen, gerla horretaz bere iritziaren berri ematen baitzuen. Baina lau urte iraun zuen guda horretako kronikak ere idatzi zituen. Kronika horiek liburu batean bilduak dira: *Guda Nagusia (1914-1918)*¹⁸.

Igone Etxebarriak hauxe dio lan horretaz: «Badirudi iritzi orokorra dela Kirikiñok gai arinak eta barregarriak erabili zituela. Iritzi hau zuzena da, baina ez da egia osoa, Bustintzak gai serioak eta Euskal Herritik kanpokoak ere landu baitzituen. Eredu argia dugu lan hau». Beste pasarte batean hau dio, Kirikiñoaren kazetari lanari dagokionez: «Euskal gaiak gogokoago baditu ere, ez du mugarik. Gizon eskolatua da, eta munduko berri

ere badu, eta hori da, hain zuzen, bere lanetan irakurleei erakutsi nahi izango diena».

Munduari buruzko ikuspegi ireki hori agerikoa da, lan honetan erakusten den bezala. Haatik, ñabardura bat gehitu behar litzaioke, Etxebarriaren oharrari: gerla mundialaz idatzi izana, dudarik gabe, Euskal Herritik kanpo gertatzen direnez interesatzearen lekuko da, eta horretaz idatzi zuen anitz nazioarteko berrikerari gisa idatzi zuen. Baina den-dena ez zen Euskal Herritik kanpo bezala landua. Kirikiñok ongi esplikatzen zuen gerlak zenbateko eragina izan zezakeen Euskal Herriarentzat, Hego Euskal Herriak gerlan parte hartu ala ez. Horrez gain, ez zuen burutik galtzen Ipar Euskal Herriko euskaldunak gerla horretan sartuak zirela, eta haienganako pentsamenduaren berri ematen zuen.

Gerla hasi zenean, *Euzkadi*-k bere egunkariaren zati handiena eskaini zion gertakari horri. Formatu zabaleko egunkaria zen, sei bat orrialde zituen, gehienetan, 1914ean bederen. Egunero bizpahiru orri betetzen zituen gerlako berriekin. Batzuetan, baina ez anitzetan, lehen orrialdeko euskarazko artikulua nagusia gerlari buruz izaten zen, Kirikiñok izenpetua. Gainerateko artikulua gehienak gazteleraz idatziak ziren. Batzuek egokienaren analisia sakona egiten zuten, beste anitzek agiri ofizialak hartzen zituzten.

Lehen orriko «Izparrak eta» sailean aurki zitekeen euskarazko artikulua, Kirikiñok idatzia. Artikuluak zutabe oso bat edo gehiago har zezakeen. Lehen orrian, gerlari buruzko kronika

orokor bat bazen, gazteleraz, «Gudagai» izenekoa. Gero, Baron Van Goltz-en kronika bat bazen, Alemaniako frenteko berri ematen zuena. Bigarren eta hirugarren orrietan, gerlako berriak ematen zituzten, aski labur, denak gazteleraz.

Laugarren orrialdean «Euzko Abendaren Elez» saila zegoen, euskaraz idatzia. Idazle batzuk aldizka idazten zuten, besteak beste Juan Bautista Bilbao *Batxi*-k. Batxi European eta munduan gaindi ibili zen garai hartan, eta gerla hurbiletik ikusi zuen. Gerla haren aipamena agertzen zen idazten zituen kroniketan. Sail horretan berriak edo kronikak baziren, baina baita gogoetak ere. Euskal Herriari buruzko gogoetak eta kezka abertzaleak ageri ziren sail hartan.

8. *Eskualduna*, gerlazale

Hurrengo orrietan, *Eskualduna* astekariaren 1914ko agorriletik abendu arteko zenbakiak aztertuko dira, hala nola, gerla hastapeneko beroanbero hori. Lehen asteetatik ageri zen *Eskualduna*-k zer jarrera gerlazalea erakusten zuen. Gerlara joan ziren euskal soldaduak, Frantziaren alde borrokatzera joan ziren. Haien artean apaiz gazte anitz bazen; gerlarako adinean ez ziren apaizek, *Eskualduna*-ren lerroetan sustatzen zituzten apaiz horiek, mezu gerlazaleekin.

Horra zer dion Piarres Xarritonek Jean Saint-Pierre *Anxuberro*-ri buruzko liburuxkan: «Hainbestenarekin sukar hori bera nagusitzera baitzoan Alemanen inperioan, gerla piztu zen azkenean, 1914ean, Europako erresuma nagusien artean eta horrela ikusi ziren, erreximenduen lehen lerroetan aitzinatzen Frantziako apaiz gazte guztiak, ofizioz bakegileen artean egon behar zutenak.

«Adineko apaizak aldiz, beren jarraile kartsuen sustatzen ari ziren, aspaldiko teologia ahanztirik eta oihu eginez itsutuki, Manex Hiriart-Urrutyk bezala, *Biba Frantzia!*»¹⁹.

Ondoko lerroetan ikusiko da nola, *Eskualduna* astekariak, Lehen Gerla Mundialaren lehenbiziko hilabeteetan, zein jarrera gerlazalea hartu zuen, eta horren bidez, euskaldunak Frantziarekin oraino gehiago identifikatzeko bidean zer funtzio

inportantea bete zuen. 1914ko agorrilean, irailean, urrian, azaroan eta abenduan, hasteko, gerla sus-tatzeko edo justifikatzeko mezuak zabaldu zituen, euskaldunak gerlara anima zitezen.

Gerlaren lehenbiziko hilabeteetan *Eskualduna* astekarian argitaratu testuen edukien azterketare-kin hasi aitzin, hitzei edo terminoei begiraturuz soilik, ageri da *Eskualduna*-k gerlaren parte ezarri zuela bere burua, argiki jarritz Frantziaren alde. Termino horiekin bakarrik, argi gelditzen da *Eskualduna* gerlako aktore bihurtu zela. Funtsean, gerlan ziren euskal soldadu batzuek ere holako hitzak erabiliz idatzi zuten *Eskualduna*-n.

Horra zer hitz agertzen zuten, lehenik, 1914ko agorrilaren 7ko *Eskualduna*-n agertu ziren artiku-luek, hots gerla piztu eta lehenbiziko zenbakikoek:

Hona hemen, «Irakurzaleari» artikulutik hartu hitz batzuk: «Zertako etsi? Ez dugu zeren»; «oldar ederra, gaitza»; «etsaiari ihardukitzeko».

Gainerateko artikuluetan ere bazen beste hitzik, esaldirik edo esaldi zatirik: «arrotz etsaiaren garhaitzera doala gure indar guzia»; «mobilizazio-ne gaitza», «hainbertze gizon, holako ordre ede-rrean»; «gerla behar badugu, doala gerla!»; «Biba Frantzia!».

Zer da esaldi gerlazaleagorik, «gerla behar badugu, doala gerla!» baino? Esaldi horrek argiki uzten du *Eskualduna* gerlaren alde zegoela.

Zenbaki horretan bezala, besteetan ere, «etsaia» eta «garhaitu» hitzak, bereziki, maiz heldu

ziren. Begi bistakoa da, kazeta batek beste herri bat edo norbait izendatzeko «etsaia» hitza erabiltzen bazuen, baten alderdia hartzen zuela eta, are gehiago, bere burua gatazkaren parte gisa kokatzen zuela. Neutralagoa izanen zen Alemania izendatzeko, «Frantziaren etsaia» idatzi izan balu edo, besterik gabe, «Alemania» soil-soilki.

Irailaren 18ko zenbakitik hartu hitz batzuk dira hauek: «Gaina dugu», «gaitzeko bataila», «irabazi dugu», «gure soldadoen oldarra», «etsai», «garhaitu»... Urriaren 2ko zenbakian, «arrotz etsaia» aurkitzen da, beste behin gehiago. «Etsaia» aski ez balitz bezala, «arrotz» hitz gehituz, desprestigiozko hitz hori gehituz, oraino gehiago areagotzen zuen bere irakurleengan Alemaniarekiko sortu nahi zuen urruntasuna eta aiherkundera.

Agorrilaren 21eko alean, Zuberoako berrien atalean, esaldi hau agertu zen: «Frantziak, orai-kouan, ez du behar partida galdu eta ez du galduren». Artikulu horren idazleak argiki erakusten zue Frantziaren alde zela; hori ez da harrigarri. Gerla izendatzeko «partida» hitza erabiltzeak gertakariaren desdramatizatzeko joera erakuts dezake eta, baita, gerlaren aldeko jarrera ere, nonbait.

Irailaren 11ko alean, hitz eta esaldi gerlazale franko aurkitzen zen. Adibidez: «frantses soldadoek ihardokitzen baitute ederki eta ihardokiko dute»; «zafratuak»... Edo adjektibo batzuk ere bai: alemanentzat, «tzar» adjektiboa edo «urdeak!» hitza, frantses soldadu zaurituentzat, «gaizoak». Herrazko hitzak, hitz gaiztoak Alemanentzat

zituen *Eskualduna*-k, dudatu gabe; alderantziz, urrikalmenduzko hitzak frantsesentzat edo frantsesen aldekoentzat. Horretaz ohar daiteke aipatu zenbaki horretan edota hurrengoetan. Bere logika badu. *Eskualduna*-k bere burua gerlaren parte ikusten bazuen, eta Alemania etsaitzat jotzen bazuen, logika horren barnean kokatzen da hitz baikorrak batentzat eta ezkorrak bestearentzat zuzentzea.

Baina *Eskualduna*-k termino eta esaldi gogoragoak ere erabiltzen zituen alemanen aurka. Astekari horrek behin baino gehiagotan adierazi zuen, ahoan bilorik gabe eta argi eta garbi, pozten zela alemanak hil izanaz. Horra hiru adibide:

Igandean zitzaukun jin Baionarat garhaitia eder horren berria; gerota bihotz-altchagarriago zauzku heldu egunetik egunera. Aleman hil hanitz; presoner milaka; zaldi, harma, tresneria zer nahi; hemen hamar kanoi, haranche 160!...

Ehun eta hiruetan hogoi kanoi; kolpez hartzea, zerbeit da!

Egundaino ez omen da nehon ikusi gure soldadoen oldarra bezalakorik.

La Marne deithu ur handirat ondarrak aur-dikitzer ditugu, bat ez zadin geldi bizirik²⁰.

Lehenbiziko adibide horretan ageri da zer balentria zuen *Eskualduna*-k bataila horretan aleman anitz hil izanagatik eta nola nahi izan zuen «bat ez zadin geldi bizirik». Ondoko adibidea, Zerbitzari kronikariaren testu batetik hartua, oraindik gordinagoa da:

Ah, zer tiroak hartzen dituzten, egunaz, kanoietarik, gauaz zizpetarik. Milaka eta milaka hiltzen ditugu; ez nahi bezenbat halere²¹.

Hirugarren adibidea ere «gerlarien berri» kronika batetik hartua da. Modu eztiagoan eta umore kutsu batekin, baina gerlaren logika betean sartzen den pasarte da, hots, gerlaren helburua ahal bezainbat etsairen hiltzea dela:

Erraiteko baizik ez da, oraino zer herra duten Moroek gure etsaientzat. Bat ikusi dut tripan kolpatua, nigar eta nigar zagoela.

Hurbiltzen nitzaio: «Qu'as-tu, mon brave? Souffres-tu beaucoup pour pleurer ainsi?» - No souffrir... - «Pourquoi pleures-tu donc?» - No pouvoir tuer Boches!» Holako soldadoekin, nola nahuzue Frantzia ez dadien nausi!!!!...²²

Argi ikusten da *Eskualduna*-k nahi zuela soldadu alemanak hil zitezen. Hori baino mezu gerlazoleagorik ez daiteke aise aurki. Harrigarria ere bada, giristinotasunaren defendatzaile sutsuenek norbaiten herioa desiratzea, gerla bateko etsaia izanik ere. Hurrengo atalean ageri da alemanenganako mespretxua zein handia zuen, gizatasuna ere ez baitzion onartzen. Alemanak «abereak» baldin baziren, haien heriotza ez zen «hain larria». Kasu guzietan, *Eskualduna*-k erabiltzen zuen terminologia hori, etsaien hiltzearen aldeko jarrera hori, gerlaren aldeko jarrera baten seinale da. Bere irakurleak (gehienek familiako norbait edo gehiago gerlan zituztenak) berotzeko eta Frantziaren alde jartzeko balio zuen terminologia da.

Eskualduna astekaria alemanen herioen berri jakitearekin pozten zen. Horrek erakusten du zer heinerainokoa zen astekari horrek alemanengan zuen mespretxua. Mespretxu hori ez zen bakarrik alemanei gizatasuna kentzeko eta haien kontra tiro egitearen larritasuna ezitzeko. Mespretxu horren gibelean zegoen, alemanek gerla galduko zutelako eta frantsesek irabaziko zutelako segurtasuna. Segurtasun hori egiazkoa izan ala ez, ez da hori inportanteena. Segurtasun horren helburua soldaduei eta haien familiei konfiantza eta kemena ematea zela erran daiteke.

Alemanen kontrako artikulua edo artikulua zatiak asterokoak ziren *Eskualduna* astekarian. Denak aipatzea sobera luze litzateke. Artikulu anitzetan, *Eskualduna*-k esplikatzeko zuen gerla Alemanek piztu edo probokatu zutela. Astekari honen gerlazaletasuna frogatzen du, horrez gain, alemanak munstro gisa agertzeko joerak. Horren adibide garbia da, 1914ko irailaren 11ko alemanen artikulua zati hau, «Etsaiaren abrekeriak» izenburuarekin:

Ezin sinetsizko abrekeriak egiten daizkute omen alemanen tzar hoiak, jendetasunaren urrinik den gutiena duten gerlatiarrek ez egitekoak.

Ez dire mintzo bakarrik frantses kazetak, baina ba handik hunat jin soldado kolpatu gaizoak; beren begiz ikusiez mintzo direnean ez sinestekotz gure soldadoak, nor sinets?

Arren huna zer dioten: ikusi dituztela beren begiz alemanak gure kolpatu lurrerat erorien hiltzen, ez delarik egitate hori populu gizontasunik dutenen artean onetsia. Alegia uko, besoak goiti

altchaturik hurbil gure ganat, eta gibelean gor-
derik zauzkaten mitrailleuses batzuekin, gu er-
hauts. Urdeak!

Estakuru gezurrezko beraz, 15 urtheko mutil
gazte bati bi begiak lehertu.

Haur uken berri emazte bat oheari estekatu,
haur gaichoa aldean, eta etcheari su eman.

Emazte haur hazle batzuri bulharra ezpata
ukaldika moztu. Gizon dohakabe ibes zoazin
batzuri, deus egin zutenez ere jakin gabe, eskuak
moztu, edo besoak, gogora heldu zitzeien
bezala.

Horrelako egitate okaztagarriek edozein ira-
kurleren baitan sor zezaketen saminaz ederki baliatzen zen *Eskualduna* astekaria. Begi bistakoa da holako zerbait idatziz, bere irakurleen artean alemanen kontrako herra oraino gehiago piztea aise lortuko zuela. Herra horrek gerla justifikatzen zuen; alemanak, jende izaera ukatuz, abereen lerroan ezartzeak haien hiltzea justifikatzen zuen, nolazpait. *Eskualduna*-k, holako berriak zabaldu zituen, «omen» balizko hitza erabiliz, hots erraten zuena frogatu ahal izan gabe. Holako berriak zabalduz, gatazka elikatzen zuen. Beste behin gehiago, gerla horren aktore gisa kokatzen zuen bere burua, Frantziaren alde.

Eskualduna-k soldaduei, soldadu zirelako eta lekuko zuzen zirelako, ematen zien sinesgarritasunarekin erne egon behar da, Remy Cazalsen arabera: «En ce qui concerne les correspondances de soldats, il faut tenir compte de l'autocensure, de la

tendance à écrire ce que le destinataire avait envie de lire, du désir de ne pas inquiéter la famille ou, au contraire, d'épater un copain... Les auteurs de carnets doivent être identifiés: âge, métier dans la vie civile, conscience politique, pratique religieuse, grade, arme, présence au front... L'attitude paresseuse qui consisterait à ne retenir que ce qui a été écrit pendant la guerre, est à éviter»²³.

Bere irakurleak hunkitzeko gisako beste berri batzuk ere ematen zituen *Eskualduna*-k, alemanen aurka: Frantziako edota Belgikako elizetan egin desmasien berri ematen zuen. *Eskualduna* irakurtzen zutenak giristino «onak» baldin baziren, elizetan egin kalteek haien bihotza hunkituko zuten.

Eta urriaren 9ko zenbakian, Aita Sainduak Alemaniako Enperadoreari gutuna idatzi ziola aipatu zuen astekari horrek. Gutun horretan aipatu zizkion soldadu alemanek elizetan egin desmasiak.

Eskualduna-k aurkezten zuen ekuazioa sinplea zen: alemanak *salbai* batzuk ziren, gerla galtzea merezi zuten eta herritarrak berotu behar ziren *gaizkile* haien kontra borrokatzeko.

Beste arrazoi bat ere ikusten zuen *Eskualduna*-k soldaduak alemanen kontra oldartzera bultzatzeko. Alemanen kontrako mespretxua haiek gerla irabazteko gaitasunik ez zutela erraiteraino zoen. Gerla hasi orduko, alemanak postura ahulean zirela azaltzen zuen *Eskualduna*-k, behin eta berriz.

Horra adibide pare bat, *Eskualduna*-k Alemaniaren ahulezia nola azaltzen zuen erakusteko.

Lehena, gerla hasi eta bizpahiru astekoa da, agorri-laren 21ekoa, Atharratzeko berri-emaileak idatzia:

Frantziaren etsai gaitza, Alemana da. Nazione bekhachtia da eta berkhoia; eta noula bere amets handi eta indar orenen gatik ez beita Frantziaren aztal beharriala heltzen, entelijentziaz, jakitatez, ez hountarzunetz, Frantziaren kountre badu bethi barneko har bat, erraietako jale bat.

Alemanian indarra gutxietsiz batera, Frantziarena goratzen zuen artikulu horrek. Ondoko adibidea, azaroaren 13koa da, Guillaume Alemaniako Enperadoreari buruzko artikulu batetik hartua da:

Gerlak erakutsiko dio huni, on bazaio eta ez bazaio, eztela heltzen Napoleon zenaren sorbalde-tara, ez eta ere gerrira; gizon handi, Handi izaiteko, eztela aski, «nahi» ukaitea.

[...] Hots, egunetik egunera histuz doa, eta aphalduz Guillaumeren izarra.

«Etsaia» postura ahulean zela azpimarratuz, haien kontra oldartzea justifikatzen harago zoan *Eskualduna*. Alemanak postura ahulean kokatuz, jazartzea justifikatua izateaz gainera, zentzuzkoa zela erakutsi nahi zuen astekari horrek. Hots, ahulak baldin baziren, garaipena posible zen, beraz ez zen arrazoirik alemanei gerlarik ez egiteko: justifikatua izateaz gainera, garaipena segurtatua zen. Berriz ere agertu da *Eskualduna*-ren jarrera gerlazalea.

Eskualduna-k Alemania hain ahul eta Alemaniaren kontrako indarrak hain azkar ikusten

zituen, non uste zuen gerla laster bukatuko zela. Hori uste zuen, bederen lehen asteetan; gero, ohartuko zen, beharbada nahi baino gehiago luzatuko zela. Baina, hastapenetik garaile gisa agertzeko arrazoiak bazuen soldaduak animatzetik gehiago. Horren erakusle da, ondoko pasarte hau:

Gerla baten irabazteko, halakorik ez duzu nola konfiantza: behinik behin zuzenean zarela; eta gero indarrez ere, zeurez edo laguntzalenez nausi zarela.

Arren badugu konfiantza hori: hastetik osoa, eta emendatuz, azkartuz joaki: abantail bat hori, 1870ean ez ginoena²⁴.

Hots, *Eskualduna*-k azpimarratzen zuena da, gerla irabazteko, gerlariak «konfiantza» behar zutela. *Eskualduna*-k konfiantza hori transmititzen zuen, astez aste, garaipena segurtzat joz, soldaduak animatuko eta motibatuko baitzituen. Euskarazko astekaria irakurtzen zutenek pentsatuko zuten gerla ez zela hain izugarrikeria handia izanen, garaipena segurua eta hurbila zela. Holako memento gogorretan morala atxikitzeko bide bat izan zitekeen hori, eta *Eskualduna*-k hori baliatzen zuen.

Horra beste adibide batzuk, garaipena hurbil ikusten zutela erakusteko:

Guzieri hemen, hauche zauku: gerlak hainitz irauten duela. Zoin gure etchetarik, Bayonako, Tarbeko edo Bordeleko kazernetan sartu ginelarik, iduri zitzaukun zortzi edo berantenez hamabortz egunen buruko, berriz etchean ginela,

etsaiak erhautsirik. Bainan Alaman horiek gerlari gaitzak dire; ez dute amor eman nahi horren laster.

[...] Beharrik da gure artilleria heiena baino hobea. Ez da, diotenaz, hain urrunkaria, bainan min gehiago egiten du²⁵.

Azkenean gerlak lau urte iraun zuen. Baina orduan ez zuten pentsatzen ere, hainbeste luzatuko zenik, artikulu horren arabera bederen. Halakoa zen testuingurua ere, gerla hasi zenean, denek uste zuten laster itzuliko zirela, gerla irabazirik. Ez da dudarik, gerlarien motibazioa ez zela bera izanen, baldin eta lau urteko gerla baten egitera abiatzen zirela jakin izan balute. Gerla laburra izanen zela errateak edo sinetsarazteak ere balio zuen tropen berotzeko, gerlaren minaren ezititzeko. Horren lekuko da pasarte hau:

«Errain dautzietan, egun jendia hemen arras alegera dela, jakinik gerla hau fite finituko dela; agian egia izain da!²⁶

Azarorako, gerla uste baino luzeago izanen zelako kontzientzia hartua zutela dirudi. Hala ere, garaipena segurtzat ematen segitzen zuen *Eskualduna*-k.

Ororen buruan geroari so egiten dugularik, ez dugu behar egin ametsik, haurren gisa, berehala fini dela eta gero iratzar nigarrez.

Gudua gure eskuetan dugula, bai: jada nausi girela, bai. Bainan partida luze izanen dela menturaz, behar dugu eman gogoari. Badakigu zer etsaia dugun zer barnea duen zer harmak eta zer

gizonak. Deramagun gure lana deskantsuak emeki, buru kolperik gabe.

Urriak egin du bere aldia, eta gu bethi hemen. Egiaren erraiteko, arras hemengotuak gira. Iku-siak ikusi, oraikoez ez dugu zeren erregura; ez dire hala dorphe. Tokiaren gainean egoite hori demboraren buruan lotsagarri litake, ez baginu ikusten partida eskuetan daukagula; gero ta gehiago ageri da norat ari den gerla izigarri hau²⁷.

Garaipena posible zela azpimarratzea ere jarrera gerlazalearen parte da. Terminoetatik harat, Alemanenganako mespretxutik harat, hots herrazko terminoetatik harat, baikortasun terminoak ere kontuan hartzekoak dira ondorio horretara heltzeko. Gerla elika daiteke herra sustatuz edota garaipenaren segurtasuna gorai patuz. *Eskualduna*-k biak egiten zituen. Berriz ere argi gelditzen zen jarrera gerlazale hori.

Baikortasun hori bereziki Euskal Herriko soldaduen eta haien familien animatzeko erabiltzen zuen *Eskualduna*-k. Berrogeita bost urtetik beherako gizon guziak gerlara deituak izan ziren. Euskal Herritik jende anitz joan zen gerlara, beraz. Euskal Herria, beraz, nahi ala ez, gerla horretan azkarki inplikaturik zen, etxe guzietan edo gehienetan bazelako gerlan zegoen seme edo senar bat. *Eskualduna*-ren jarrera gerlazalea zuzenean lotzen zen euskal soldaduen gorai patzearekin. *Eskualduna*-k erakutsi nahi zuen Euskal Herriko soldaduak zein soldadu zintzoak eta onak ziren.

Eskualduna-k behin baino gehiagotan gorai patzen zuen gerlarako mobilizazioa. Gerla hasi eta

berehala, agorrilaren 7an, esaldi orokor hau adierazgarria da:

Hau da berriz mobilizazio gaitza! Egundaino Frantzia ez da ikusi holakorik. Hainbertze gizon, holako ordre ederrean, hoin fite, oro utzirik, denak soldado.

Argiki ageri da mobilizazioa eta gerlara joatea zein hitz baikorrekin aipatzen zuen. «Holako ordre ederrean» edota «hoin fite» hitz laudagarriak dira, mobilizazioa edertzen zutenak. «Oro utzirik» azpimarratzearekin, sakrifizioaren edo dedikazioaren ideia erakusten zuen *Eskualduna*-k, apez egitearen kasuan bezala: gerla gauza guzien gainetik. Ideia hori bera berriz agertzen zen, agorrilaren 21eko artikuluko batean:

Gaizo gizonak, ... nongo nahiko izan zaitezten, zuen etcheak eta etchekoak oro utzirik, burhaso zahar, emazte, haur eta haurride, zoinek zuen guziak nigarretan,... hanitzek eri, ezindu, bere-naz egiteko ez on, behar hotzak, bazoazte.

Zoazte kuraiez, lotsatu gabe.

Zati horretan, etxeakoak uztearen gogortasuna ongi deskribatzen zuen *Eskualduna*-k. Berriz ere idatzi zuen «oro utzirik». Segidan, sufrimendu horien gainetik, «zoazte kuraiez» idazteak erakusten zuen, beste behin gehiago, astekari horrek Euskal Herriko gizonen sakrifizio hori onesten zuela, eta jendea gerlara joatera animatzen zuela.

Hona hemen beste adibide bat: «orok oro utz eta loth, hala behar denaz geroz, zinkurinarik

gabe, gizonki, gerlarako bideari». Familia bateko seme guziak gerlara joatea txalotzen zuen artikulu batetik hartu esaldia da. Familia hori eredu gisa aurkezten zuen, beste artikulu batzuetan beste familia batzuk bezala. «Zinkurinarik gabe» eta «gizonki» hitzekin, gerlara joatea gizon izatearekin lotzen du, «gizon», indarraren, kemenaren edo gizontasunaren – artasun – ikuspegitik, Ipar Euskal Herriko etxaldeetan hain gorai patua zen balioaren ikuspegitik, ikuspegi matxista batetik, nolabait errateko. Gerlara joatea «gizonki» portatzea bazen, gerlara ez zihoana ez bide zen arras gizona... Ipar Euskal Herriko gizartean, pisu handia duen hitza hautatu zuen *Eskualduna*-k, gerlarako gogoaren sustatzeko.

Horrekin, mobilizazioaren arrazoi patriotikoa erlatibizatzen du Remy Cazals-ek: «Chez les vrais soldats du front, les cas de patriotisme exalté me paraissent avoir été rares, ou brefs, surtout à partir de la fin de 1914. Plus fréquente a été la conscience d'un devoir inéluctable à accomplir: devoir envers la France ou la République, peut-être, en échange des droits qu'elle a donnés; devoir envers le petit groupe de camarades dont la solidarité représente une question de vie ou de mort ; devoir envers sa famille (pour la protéger des hordes ennemies? ou de la honte et des tracasseries qui attendent les proches d'un déserteur ?). Il faut prendre en compte, encore, la volonté de ne pas ternir l'image de soi, de bien respecter les normes de virilités»²⁸.

Arrazoi horiek ez zituen ikusten *Eskualduna*-k, baizik eta soldaduen borondate ona. Baina

Eskualduna-k soldaduak animatzeko terminoak, maiz, Cazalsek aipatzen dituen horiek ziren. *Eskualduna*-ri interesatzen zitzaion aditzera ematea soldaduak gogo onez zoazela gerlara. Gerlarako zuten engaiamendua gorai patzen zuen, bestalde, batzuk eredu gisa aipatuz. Hego Ameriketara bizi ziren euskaldun batzuk Euskal Herrira itzuli zirela gerlara joateko aipatzen zuen *Eskualduna*-k, haien hautua txalotuz:

Hilak hil, kolpatuak kolpatu, ez daude Frantzia, ez Eskual-herria oraino uko egitekotan.

Zortzi Hazpandar jin dire aste huntan Chiletik beren soldado eginbidearen bethetzera: Bernardin Darthayet; Ch. Dindabure; St-M. Itzia; Laurent Lissarrague (Tattila); René Londaitz; Mendilahatsu (Compai); Sabaloa (Jats).

Zortzigarrenaren izenaz ezin orhoitu da zazpi hoik eman dauzkuna.

Biez bertzeak untzitik chuchen joan dire gerlarat, etcherat gabe. Bravo!²⁹

Jarrera *heroiko* hori gorai patuz, *Eskualduna*-k oraino zilegitasun gehiago eman nahi zion Frantziaren alde gerlara joateari. Berriz ere, lehentasuna gerlari ematea txalotu zuen, «etcherat gabe» joan zirela azpimarratuz. Gerlaren aldeko jarrera argi ageri zen, etxeokak agurtzeari baino garrantzia gehiago gerlari ematen zion aldizkariaren partetik.

Euskaldunak zein gerlari baliosak ziren ezin aski frogatuz zebilen astekari euskalduna, asterik aste. Izan «gerlarien berri» atalean, izan herriko

berrietan, beti aipatzen zituzten euskal soldaduen balentriak. Euskaldunak zein kementsuak ziren goraipatu zuen azaroaren 13ko «Gerlarien berri» artikuluko esaldi honek:

Afrikako soldado arabe hek dire pleini gehienik, bethi zinkhurinaka Alamanak ere bai. Sofritzeko nausi gira kuraiez guzieri³⁰.

Euskaldunak beste soldaduekin konparatu zituen artikuluko egileak. «Sofritzeko» eta «kuraiez» besteei nagusi izatea goraipatzen zuen. Kuraia edo kemen horren erakusteko beste bide bat zen zauriturik Euskal Herrira etorri zirenek gerlara lehenbailehen itzultzeko zuten grinaren goraipatzea. Bide horretan lehen urratsa zen zauritzearen desdramatizazioa. Ondoko pasartean ageri da, Baionako ospitalean artak hartzen ari ziren gerlari zauritu batzuen arteko giroa aipatzean:

Gazte alabainan, eta elgarrekin jostatu nahi. Omone on, salda on, ohe on, artha gocho, eta ahal denean zonbeit zigarret edo zigarro, zer behar du bertzerik soldado kolpatu larru onekoak? Vive la joie!³¹

«Vive la joie!» komentario horrek gerlaren krudelkeriarekin eta zaurien oinazeekin kontraste izugarria egiten du. Ia iduri luke gerla josteta bat balitz bezala kontatzen zuela artikuluko egileak. Zauritua izatea desdramatizatzen zuen, hain zuen, gisa horretan. Desdramatizazio horrek balio zuen gerlan zirenei edo zaurituak zirenei kemena emateko, zinkurinka edo gerla zein gogorra zen

azpimarratuz aritzeak kontrako efektua eragin zezakeelarik.

Beste artikulu batzuetan ere erakustera ematen zuen *Eskualduna*-k euskal soldadu zaurituen gerlarako gogoia. Irailaren 11ko alearekin segituz:

Berehala on direnak gogotik doazi berriz gerlarat. Bihi bat ezta uko dagonik.

Jitean baino itchura hobea dute orok ere joaitan.

Sendatzen zirenek zauriturik jitean baino itxura hobea zutela begi bistakoa da. Hori azpimarratzea zauritzearen desdramatizazioaren parte da. Gerlara «gogotik» zoazela erratea, beste hainbeste. Berriz ere iduri du gerla josteta bat bezala aurkezten zuela *Eskualduna*-k. Hitz horiekin, gerlarako gogoia sustatzea bilatzen zuela berresten da.

Arinkienik hunkituenetan badire berriz joaita berandetsiak. «Hiltzer nute, diren bezalakoek; ez gira goizegi berriz elgarretarako, hel ahaleri tripak egin ditzotedan».

Izitu lotsaturik guti da. Gehienek daukate, gerlatiarrez gerlatiar, alemanak bezenbat bagirela³².

Pasarte honek berresten du aitzineko pasartetik atera ondorioa. Gerlara berriz joatea «berantetsia» zutela erraitea, kemen eta debozio *handi* horren erakusteko zen, nekez sinets baitaiteke edozein gizonek hiltzeko arriskua hartzea hain atsegin zuela. Euskaldunek gerla horretan Frantzia zenbat laguntzen zuten edo zein frantses onak ziren erakustea zen, orenen buru, mezu horien helburua.

Eskualduna-k aditzera ematen zuen euskaldunak oro arras gerla horren alde zirela eta arras gogotik zoazela gerlara. Geroztik ikerlari batzuek erran izan dute hori ez zela arras egia, eta anitzek Hego Euskal Herrira ihes egiteko hautua egin zutela, gerla hori ez egin nahiz.

Hego Euskal Herriko hedabide batzuek, gerla hasi eta laster, jakinarazi zuten Ipar Euskal Herrian jende anitz altxatu zela gerlaren aurka. Hori zion *Eskualduna*-k, agorrilaren 21eko alean.

Aitzinagoko astean izigarriko kalapita eta zalapartak omen ginituen berriz Baionan; gaitzeko jendetzea gerlaren kontra altchaturik.

Izendatzea bera balio ez duen buru bero, artetan hegoak derabilan baten zerez, haro bat, nolakoa, hor mendiez haraindiko kazeta batzuetan.

Eskualduna-k ukatu zuen informazio hori egia zenik. Maiz, gustatzen ez zitzaion berri oro gezurtzat jotzeko joera zuen astekari horrek. Ipar Euskal Herrian ez zitekeen gerlaren aurkakorik izan, hori *Eskualduna*-k zabaltzen zuen mezu gerlazalearen kontrakoa zitakeen.

Desertore zenbaiten berri aipatu izan zuen, hala ere; baina desertore horien hautua gogorki kritikatzeko. Hona hemen, azaroaren 6ko pasarte bat:

Frantses Eskualdun Etcheke-Jaun batek igorri dauku duela zonbeit egun gure, herritar pilotari aiphamen handiko bat Espainiarat joan berria omen gerla huni ihesi, hango plaza batean agerturik burua gora, nahi etzituena entzunik

dagola; nehon guti baitire omen holako hoik begi onez ikusiak; hola utzi herriarentzat bertze-neaz ephel, ba eta hotz daudenek ere ahalik gutiena baitituzte ikusi nahi.

Holakorik gerthatu bada, eztu delakoak merezi zuena baizik aditu, ziztu eta oihu.

«Gerthatu bada»; ezen geroztik erran daukute, etzela egia; gero berriz baietz, egia dela; choilki, behin izendatua soldado da omen, eta ez uko egitekotan; sua lehen aldiko ikustearekin durduzaldi bat ukan eta bere baitharatutuz geroz. Hala ez bada, hala izan bedi.

Bertze pilotari bat omen da erresuma auzorat ihes joanik, itzal-arazi dutelakoa oihuka: «kuku, kuku».

Holakoetan bereziki jenden amen-omeneko erranak eztirelakotz nola nahi altchatzeko, zoin hobendun, zoin ez, begoite izenak argitarat athera gabe, gutarik behinik behin.

Bertzalde, «desertor» solas hoik etzaiku laket. Nahiz orai arte guti den, hoitarik eta hoitzako elherik gutiago eta hobe dela baitaukagu hemen.

Delako desertore horren kontrako ziztuak eta oihuak zuzentzat joz, *Eskualduna*-k bere iritzia argiki eman zuen gerlara joateari uko egiten zutenei begira. Gorago komentatu jarrerarekin guztiz koherentea zen, eta jarrera gerlazalea berresten zuen, aldi batez gehiago. Hitzez hitz zion, funtsean, desertoreei buruzko solasak ez zitzaizkiola «laket», ez zituela gustuko.

Eskualduna-ren jarrera gerlazalea ilustratzen duten adibideak nahi adina aurki daitezke.

Gerlako terminoak erabiliz, alemanak gutxietsiz eta madarikatuz, euskaldun soldaduak berotuz, *Eskualduna*-k ez zuen bakarrik gerlaren alde zela erraten, gerlako aktore gisa finkatzen zuen bere burua, bere irakurleak gerlarako berotuz.

Johan Galtung gatazka eta bake prozesuak ikertu dituen ikerlariak gatazka elikatzen duten hiru bortizkeria mota zehaztu zituen. Hiru mota horiek bestea eragiten dute, ziklo baten gisan. Horietarik bat da «bortizkeria kulturala». Gerla izanik, bortizkeria fisikoa eta estrukturala hor ziren. Logikoki, bortizkeria kulturala ere bai. *Eskualduna*-k diskurtso bortitza zuen, alemanen kontrako herra zabaltzen zuen, eta gerlarako deia egiten, gerlara joatea zerbait heroiko balitz bezala.

Eskualduna gerlako parte gisa agertzen zen, Frantzia gerlan zelako, eta beraz, Ipar Euskal Herria ere bai. Inplikazio handi horrek erakusten zuen Ipar Euskal Herria Frantziaren parte ikusten zuela. Gerlan inplikatzek erran nahi zuen Ipar Euskal Herria ere gerlan inplikatzen zuela, Frantziarekin eskuz esku, edo Frantziaren parte gisa.

9. Euskaldunak frantses

Gutziz adierazgarria da gerla hasi eta ondoko *Eskualduna* astekariko azalean, 1914ko agorrilaren 7an, handi-handian ezarri zuten izenburua: «Gerla haste - Biba Frantzia!». Azpтитulua ere bazuen izenburu handi horrek: «Herrialde auzoak gure alde». Beste asteetan, artikuluak zutabeka zetozen, eta izenburuek zutabearen zabalera okupatzen zuten. Aste horretan, izenburu nagusiak, bost zutabetik hiru betetzen zituen³³.

«Biba Frantzia» frantses oihu bat da, dudarik gabe, frantsesek egiten dutena, eta are gehiago gerla testuinguru batean. *Eskualduna*-k oihu hori bere eginez, bere burua frantses ikusten zuela adierazten zuen. Beste zenbakietan ere maiz erran zuen, «Biba Frantzia».

Eskualduna-ren jarrera gerlazaleak eta inplikazioak pentsatzera ematen dute, beraz, bere burua Frantziaren parte ikusten zuela. Eta ez horrek bakarrik. Artikulu guzietan, *Eskualduna* frantses gisa mintzo zen. Horren adierazle garbia da, pluraleko lehen pertsona erabiltzen zuela, ia beti, Frantzia izendatzeko.

Funtsean, hitzez hitz adierazten zuen, bereztat, Ipar Euskal Herria Frantziaren parte zela: «Frantzia guziak, Eskual-herria barne» (agorrilaren 7an), «frantses on, euskaldun on» (agorrilaren 21ean), «guk, eskualdun frantses katolikoek» (urriaren 30a). Hara hiru adibide, *Eskualduna*-k

euskaltasuna eta frantsestasuna lotzen zituela frogatzen dutenak. Euskal Herria Frantzia guziaren parte zela zioen lehenean, frantses ona euskaldun ona zela bigarreanean, nortasun bikoitza adierazten zuen hirugarrenean, euskaldun izatea eta frantses izatea batera zihoazen.

Beste batzuetan, euskal nortasunaren zubitik pasatu gabe adierazten zuen frantsestasuna *Eskualduna* astekariak. Adibidez:

Frantzian, baditugu hogoi-ta-hemeretzi miliun jende, eta lau miliun soldado.

Frantzia eta pluraleko lehen pertsona lotuz («Frantzian, baditugu») artikulua idatzi zuenak mugak argi zehazten zituen. Euskal Herria aipatu gabe, *Eskualduna*-ren eremua Frantzia zen, eta Frantziaren zati bat.

Ondoko bi adibideek ere argiki erakusten dute Frantziarenganako identifikazioa:

Guillaume urguluntzi handia, gure Frantzia ederretik ja bere ustez hamar bat departamenduz jabetua.

Hortik, «gure Frantzia ederretik» azpimarragarria da. Batetik, «gure» horrekin, euskaldunak osoki Frantziaren parte zirela adierazten zuen, Frantziaren jabe, hots, frantses. Edertasunaren kontzeptua subjektiboa da, baina jabego horren baitan kokatzen den hitza dela erran daiteke. Gurea da, beraz ederra da, edo gurea eta ederra denez, are gureagoa da.

Artikulu beretik hartu beste esaldi bat da hau:

Orai duela barrogoi-ta lau urthe, Alamanek, garhaitu gintuztenean, hartu zauzkuten bi eskualde, Alsace eta Lorraine.

Alsace eta Lorraine eskualdeek bazuten beren garrantzia gerla horretan. Baina euskaldun batek, bi eskualde horiez mintzo zela, «hartu zauzkuten» errateak badu bitxikeriatik. Bi eskualde horiek ez ziren Euskal Herriarenak, inondik ere; are gehiago arrotz ziren Euskal Herria eta bi eskualde horiek, Alsace eta Lorraine Frantziaren beste muturrean direlako. Eskualde horiek norbaiti hartzekotan, alemanek Frantziari hartu zizkioten. Esaldi horretan erakutsi zuen *Eskualduna* astekariak, zein frantsesa zen izpirituz.

Hori horrela zen beste kasu anitzetan ere: Frantzia edo Frantziaren zerbait aipatzen zuen guzietz edo gehienetan, «gu» edo «gure» erraten zuen:

Ukan dezagun konfiantza gure armadetako aitzindarietan; egin dezotegun kreit, behar den guzia eginen dutela.

Eskualduna-rentzat ez zen «Frantziako armada» baizik eta «gure armada». Beste adibide batzuk emateko, horra zer zion Italia, Ingalaterra eta Errusiari buruz:

Italiari buruz: «gure alde ez bada, ez dela kontra izanen».

Ingalaterrari buruz: «Agian, agian eztauku huts eginen anglesaren laguntzak.»

Errusiari buruz: «Eta Rusia? - Erran gabe doa: Rusia gurekin».

Horra zein garbi ikusten den *Eskualduna*-rentzat Frantzia gu ginela, hots euskaldunak frantses zirela. Azken adibide honetan ere bai:

Haste hartan, bortizki jazarri zitzauzkigun, gure lagunetarik frango hilez eta hainitz kolpatuz. Uste gabean, Belgikako lurak iraganik, Pariserat hurbilduak ginituen.

Bainan laster iratzarri ginen, Frantsesak³⁴.

«Baina laster iratzarri ginen, Frantsesak». Berriz ere argi eta garbi idatzi zuen *Eskualduna*-k, kasu honetan *Zerbitzari* izengoitiarekin sinatzen zuen gerlariak, euskaldunak frantsesak zirela.

Eskualduna-ren jarrera gerlazalea osoki ulertzen da Frantziarengan identifikatze horrekin. Bestela errateko, *Eskualduna* hain frantses sentitzen zela ikusiz, aiseago ulertzen da zergatik zen hain gerlaren zale: *Eskualduna* gerlaren zale zen, bere burua frantses zeukalako.

Lehenbiziko asteetatik landa, ia asterokoak ziren Euskal Herriko soldadu batzuk gerlan hil zirelako berriak. *Eskualduna*-k gerlan hil zirenak omentzen zituela errateaz haratago, bereziki azpimarra daiteke, herio hori nola aurkezten zuten zenbait aldiz. Hots, gerlan hil zirenek, «bizia herriarentzat» eman zuten. Ondoko bi adibideek argi eta garbi erakusten dute:

Bizia herriarentzat emanik Jainkoari, azken hatsa botatzen duen *Eskualduna*, eskualdun

apez baten eskuetan, dohatsu! Zer kontsolamendua haren etchekoentzat!³⁵

Bizia herriarentzat ematea herio ohoragarri gisa aurkezten da beti. Euskal Herrian, azken urteetan, maiz aipatu dira «beren bizia herriaren alde eman» dutenak, Euskal Herriaren independentziaren alde armak hartu eta hil diren kideak izendatzeko. 1914ean, *Eskualduna*-k termino berak erabiltzen zituen, baina, kasu hartan, herria ez zen Euskal Herria, baizik eta Frantzia.

Hona beste adibide bat, ildo beretik:

Behinik behin ez ditugu zeren berak ukan urrikari, hola doazinak, beren odola, bizia eta oro emanik herriari, sari ederra zeruan jadanik gozatzzen baitukete, segur, merezimendu arau³⁶.

Eskualduna-k Frantziaren aldeko sakrifizio hori goraiatzzen zuen. Gerla batean hilez gero, hil hori heroi bihurtzen da, eta Hilen Monumentuan haren izena sartuko da, «Mort pour la Patrie», gisa. Heriotza horren goraiatze hori oraindik frantzesago sentitzeko bidea zen, hilaren hurbilekoentzat eta gerla egin baina heriotik salbatu zirenentzat.

Hubert Pérès ikerlariak Hilen Monumentuei buruz idatzi testu batean hau dio:

«Néanmoins, la constellation des sujets identifiés est supposée rassemblée par les liens d'appartenance au pôle le plus vaste de l'identité ici énoncé: La France, ou Patrie. Etant donné que le symbolisme patriotique des monuments aux morts retient spontanément l'attention, rien n'est

plus aisément explicite que ce mode d'identification. D'abord, parce que le regroupement des individus énumérés suppose une destinée commune dévoilée par l'appartenance nationale. Les morts sont bien des individus: pourtant, ce n'est pas leur mort individuelle qui est honorée»³⁷.

Gerlako heriotza, heriotza kolektibo baten baitan kokatuz, kolektibotasun hori indartzen dela dio Pérèsek. *Eskualduna*-k ere gerlan hil zirenak kolektibotasun horretan kokatzen zituen, eta kolektibotasun hori Frantzia zen. Hiltzen zena norbanako bat bazen ere, sakrifizioa egiten zuela dio Pérèsek, eta sakrifizio hori nazioaren parte egitea zela gehitu du: «Dans les énoncés des dédicés, la France joue un rôle terminal de destinataire du geste individuel; comme si l'action sacrificielle était volontaire et prolongeait une adhésion délibérée à la nation»³⁸.

Gauza bera egiten zuen *Eskualduna*-k ere. Gerlara zoazen euskaldunen engaiamendua zinez beren baitarikoa zela aditzera ematen zuen, erran gabe ez zutela hauturik. Sakrifizio bat zen, nonbait, eta batzuk hiltzen ziren. *Eskualduna*-ren diskurtsoan, sakrifizio horrek eta herio horiek frantses nazioaren parte egitea erran nahi zuten. Frantses nazioarenganako grina eta kezka zabalitzen zituen, horrela.

Horren lekuko da, gerla hasi eta berehalako artikulu batetik hartu esaldi hau:

Donibane Lohitzunetik Atharratzeraino eta han harat azken herrietako azken mugaraino, dezagun egin guziek bat Frantziarekin³⁹.

Horrek berresten du Frantziarekin bat egiteko deia egiten zuela *Eskualduna*-k.

Frantziarenganako atxikimendu eta kezka hori aipatzen zuen artikulu orokorretan. Baina herrietako berrien sailean, herritarrak berak Frantziaren etorkizunaz arras kezkatuak zirela erakutsi nahi zuen *Eskualduna*-k; hots, ez zela bakarrik nolabaiteko elite bat kezka hori zuena, baizik eta herri guzia.

Ondoko adibide honetan ageri da *Eskualduna*-k herritar soil batek Frantziarentzat zuen grina biziki handia zela:

Huna hau, ama bat guhauri mintzatua, Espainiako karrikan auzo duguna, elhaire ez ginuelarik, heldu zauku karrikaren erdira, haurño bat eskutik, bertze bat chutik joaitekoa, besoetan; begitartea mehe eta zuhail bezen begiak chuchen, mintzoa sarkor:

«Othoi, jauna, erradazu: garhaituko dutea gure gizonak etsaia oraikoan ez balezate garhait, Frantziarenak egin luke bethikotz».

Ahalik hobekiena ihardetsi diot: «Brave femme, ayons confiance en Dieu – Ba, jauna, bainan zinez egia: ene senharrak bere biziaren sakrifizioa egina duen bezala, nik ere onesten dut bihotzetik; alharguntsa gelditzera nago, Frantziak irabaztekotan»⁴⁰.

Artikulu honen arabera, ez ziren bakarrik soldaduak Frantziaren alde sakrifizioa egiten zutenak; soldaduen emazteak ere prest ziren –hor agertzen dena eredutzat hartuz segurik– alargun izateko edo senarrak gerlan zituzten garaiak gogor

iragaiteko, Frantziaren alde. Emazte horrek Frantziaren etorkizunaz zuen kezka; honen lekukotasunarekin erakutsi nahi zuen, *Eskualduna*-k, Ipar Euskal Herriko herritar xumeek beren burua zinez frantses zeukatela. Horrekin, indar gehiago ematen zion aitzineko pasarteetan agertu den jarrera frantses zaleari.

Ondoko adibidea ere ildo beretik doa, baina, aldi honetan, berriketari baten hitza da:

Basaburuko gizon gaztek orok ihardetsi die lehiaz eta alageraki Frantziaren deiari. Saldoka eraitsi dira beren lekhiatarik. Frantziaren amodioua bihotzian eta Aleman thorpia begietan, abiatu dira heraberik ez lotsarik gabe, su garra bezain bero.

[...] Frantziak, oraikouan, ez du behar partida galdu eta ez du galduren; nazioniaren bizia eta izatia trebesiala emanik dira⁴¹.

Kronikari honek Frantziarenganako maitasuna adierazi zuen batetik, eta frantses nazioaren bizia arriskuan ikusten zuelako, gerla irabazi behar zuela gehitu zuen, bestetik. Ohar horietan, frantses sentitze hutsetik urrunago zihoazen aipatzen zuen emaztea eta Atharratzeko berri-emailea. Frantses nazionalismoa, frantses nazioarenganako atxikimendua eta kezka erakusten zituzten. Beren burua nazio horren parte sentitzeaz gain, diskurtso nazionalista garatzen zuten *Eskualduna*-ko berri-emaile horiek.

Frantses nazioarenganako atxikimendu eta kezka hori nola sortu zen esplikatzeko du Peio

Etcheverry-Ainchart historialariak: «L'Etat français sait proposer à la population des thèmes forts, qui la mobilisent et qui l'unissent: après la défaite de Napoléon Ier et la gestion de la victoire par les autres puissances européennes lors du congrès de Vienne de 1815, la volonté de revanche et le sentiment d'injustice sont mis en avant. Il est opératoire jusqu'à la chute du Second Empire. Puis la défaite contre la Prusse et le rattachement à l'Empire allemand de l'Alsace-Lorraine offrent de nouveaux thèmes porteurs d'unité nationale. L'ennemi commun à tous les Français est désigné, l'Allemand, et le déclenchement de la guerre de 1914-1948 achève d'unir le pays»⁴².

Eskualduna-ren ildo editoriala logika horretan sartzen zen. Mende bateko historiak frantses nazionalismoa euskal gizarteraino errotu duelako lekukoa da *Eskualduna*. 1914-1918 gerla baldin bazen nazionalismoaren errotze hori bukatuko zuena, ageri da *Eskualduna*-k horretan ere paper hori jokatzeko zuela.

Ondorio gisa, erran daiteke *Eskualduna*-k frantses nazionalismoa sustatzen zuela bere irakurleen –hots, euskaldunen– baitan. Frantzia aipatzean pluraleko lehen pertsona erabiliz, Frantzia gorai patuz, Frantziaren alde hiltzea «herriaren» alde hiltzea zela txalotuz, Frantziaren batasunarenganako kezka erakutsiz, jadanik anitz errotzen ari zen frantses nortasun hori areagotzen zuen *Eskualduna*-k.

Kontraesana dirudi, euskal nortasunari atxikia izanez batera, frantses nortasunari halako mirespena agertzeak. Jarrera kontraesankor hori

azaltzen du Manex Goihenetxek. Antoine d'Abbadie-k antolatzen zituen Lore Jokoei buruzko azterketan, Manex Goihenetxek argitara ematen du zein zen XIX mende bukaerako euskaltzaleen ideologia, Ipar Euskal Herrian. Batetik, Goihenetxek ohartarazten du euskara antzinakotasunarekin eta tradizioarekin lotzen zutela Eskualzaleen Biltzarra elkartearen sortuko zutenek. Halaber, euskaldun haiek, beren «aberi handi» gisa Frantzia zeukatela azpimarratu zuen.

Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco liburuak euskal beste buruzko erreferentzien zerrenda kronologikoa eskaini zuen, eta Goihenetxek horren bilduma bat eginez erakusten du zenbat erreferentzia egiten zioten frantses nortasunari, beti ere, euskaltasuna frantsesitasunaren parte zela argi utziz: «Basques purs, Français sans réserve», «qui aime mieux sa petite patrie [...] donne de meilleurs gages à la grande», «plus vous serez Basques, mieux vous serez français»⁴³...

Goihenetxeren arabera, euskal kulturaren eta euskararenganako atxikimendua ez zen euskal nortasunari lotua espresuki, baizik eta aldaketa handiak jasaten ari zen baserri munduko harreman sozialei eusteko beharraren sentitzearen adierazpen bat. Kultura hori zen tradizioaren eta antzinakotasunaren oinarria.

Eskualduna-k ere ideologia hori zekarren berekin: euskaldun ona izateko frantses ona izan behar zen, edo alderantziz, frantses ona izateko euskaldun ona izan behar zen, biak elkarrekin lotuak ziren.

10. Aberri txikia, aberri handia

Frantses sentitze horrek ez zuen euskal nortasuna baztertzea erran nahi. Bai, *Eskualduna* euskarari eta Euskal Herriari atxikia zitzaion; eta horren lekuko da Hego Euskal Herriko euskaldunengan zuen errespetua. «Gure eskualdun anaiak» aipatzen zituzten. Baina, gerla honen harira, ikuspegi arras desberdinak zituztela erakustera ematen zuen *Eskualduna*-k.

Gerla hasi eta lehen hilabeteetan, bi astez segidan, bi artikululu luze argitaratu zituen *Eskualduna*-k, Hego Euskal Herriko euskalduneri buruz kritikoak zirenak. Kritika horiek ongi erakusten dute mugaz bi aldeetan zegoen egoera desberdina. Baina kritika horiekin batera, interesgarria da ikustea, hala ere, atxikimendu handia zeukatela batzuek besteengan. *Eskualduna*-k ongi azpimarratzen zuen ez zuela Hego Euskal Herriko euskaldunekin haserretu nahi, kritika eta desadostasun horiek adierazi izanagatik.

Hego Euskal Herriko abertzaleek Euskal Herria Espainiarengandik bereiz zedin nahi izatea kritikatu zuen *Eskualduna*-k, urriaren 23ko artikululu batean. Hala ere, artikululuaren hasieran erakutsi zuen Ipar eta Hego Euskal Herriko euskaldunen artean atxikimendu bat bazela:

Gerla aitzinean Eskualdun huntan bethi atseginekin irakurtzen ginituen Espainia aldeko

eskualtzale onetarik batek bi edo hirugarren aldia du, irakurtzaleak, zuentzat edo guhaurtzat igortzen dauzkula goraintziak.

Zinez guri atchikia dagolako marka, ja ezpaganakien ere. Ba eta gu hari eta harekilako gure eskualdun anaieri; gerla ondoan, lan huni hemen gurekin berriz lothuak ikus uste baititugu, arte huntan agian izanen ez den berriagokorik ezpalinbadugu⁴⁴.

Lerroalde honetan ageri da elkarren arteko harremanak bazituztela, eta baita atxikimendua ere. Horren lekuko da «anai» hitza. Elkarrenganako adiskidetasuna ez galtzeko arrangura ere agertu zuen *Eskualduna*-k, artikulu berean:

Solas min eta minbera ez othe dugun hau, nago, eta odol hotzean, gizonki, adichkideki, eskualdun haurrideki aiphatzekoa hemen elgarrekin, hitzak bederazka neurtuz, haztatuz.

Deus ez erranik nahiago nuke, huntarik behar bagine makurtu. Ez balinba!

Egin nahi zuen kritika egin nahi zuen, baina samurgorik sortu gabe. Horretarako hitzak neurtu nahi zituela aditzera eman zuen artikulu egileak. Artikulu osoan zehar aipatzen zuen bi aldeetako euskaldunen arteko adiskidetasuna. Eta bukaera aldean hau gehitu zuen:

Zuen gogora mintzo ez bagira, ez huntan zuek ere gure gurera. Goazin aitzina halere bethi adichkide eta eskualdun aneia.

Urriaren 30eko artikuluan, Hego Euskal Herriko euskaldun anitz alemanen alde zela-eta, kritika latza egin zuen *Eskualduna*-k. Hala ere, artikulua bukaeran, kritika guziak erran ondoan, hori zehaztu zuen:

Barkatu, eta gu zuen, zuek gure adichkideago bethi, munduko aleman guziak baino, agian!⁴⁵

Hor bada aitzineko orrietan aipatu den frantsesitasuna erlatibizatzen duen zerbait. Alemana etsai gorria baldin bazen, Ipar Euskal Herriko euskaldunak errotik frantsesak baldin baziren eta Hego Euskal Herrikoak alemanen alde, Hego Euskal Herrikoek etsaien lerroan ezarriak izan behar zuketena (etsaiaren laguna, etsaia). Baina ez, *Eskualduna*-k adiskidantza horri eutsi nahi zion, beraz hor aitortzen zuen, zeharka bazen ere, euskal nortasuna frantses nortasunaren gainetik zegoela.

Dena den, ohargarria da Hego Euskal Herriko euskaldunak izendatzeko, «Espainia aldeko *Eskualdunak*» erabiltzen zuela *Eskualduna*-k. Beren buruentzat, aldiz, «gu Frantzia aldeko *Eskualdunak*» erabiltzen zuen. Horrek erakusten du elkarrenganako atxikimendua hizkuntzari eta kulturari lotua zela, baina politikoki ez zirela ikuspegi berekoak.

Eskualduna-k ikusten zuen desadostasunetarikoa bat, gerlari buruzko jarreraren zegoen. Hego Euskal Herriko euskaldun anitz alemanen alde zegoela kritikatzeko *Eskualduna*-k. Aitzineko zati batean aipatu da nola *Eskualduna*-k gauza guzieren arduraduntzat alemanak jotzen zituen eta

bestela ziotenek gezurra ziotela erraten zuen. Hona hemen, adibide garbi bat.

Gerla hau guk piztua dela dautzute gezurra erranen Alemanek: ba eta, gu baino hek sinetsi nahiagoz, Espainia aldeko eskualdun askok. Ez orok: hanitzek ba. Gehienik, diotenaz, Karlis-tek.

Ez dute oraikoa: bainan ez bide zuten egundaino beren burua hoinbertze agertu Alemanaren alde, gure kontra. Ez guziek balinba, eskualdun karlistek ere; ba ordean hanitz, hanitzek.

[...] Nonbeit zerbeit izan behar da hor, bertzetan, bainoagokorik oraiko huntan, Don Jaime, karlisten oraiko nausi errege-geiak jakin arazi diotenaz geroz, eztuela onesten bere aldekoen egitatea: gain gainetik eta goraki kondentzen dituela, gerla huntan Frantziaren kontra direlako karlistak, nahi bezen atchikiak izan ditzen hari don Jaimeri.

Erran behar da oraiko errege don Alfonzoren aldekoetan ere baditugula, erdaldun ala eskualdun, asko etsai Espainian; karlistetan baino gutiago. Halere behartzen zaiku, errege Alfonzo bera osoki alde baitugu.

Ama otrichianoa du Espainiako erregek, andrea berriz anglesa: hetarik baloa ez-baia, lanetan litake, biekilakoa ezin eginez.

Baginuke uste, biak aleman hutsak balitu ere, balakikela gizonki zer egin, emazteñoeri erranik; beharrez; daudela beren sukaldean.

Alfonso tiar eta Jaimetiar hoinbertze ikustea, beren bi Buruzagiak ez bezala, gure kontra gerla

huntan, alemanaren alde, handi zaiku. Zenbatez handiago ezta ikustea, nehoren azpiko ez diren edonahi ez litazken batzu, bakarrik eskualdun katoliko, mintzo zaitzula gerla huntaz bezalatsu: alemaniaren alde, Frantziaren kontra!

Ageri edo iduri, sinetsiak dituztela Alemanen gezurrak; non guk dugun bilhatu, guk piztu gerla hau, ez gure etsaiek⁴⁶.

Eskualduna-k zehaztu zuen alemanen aldeko anitz karlisten artean zegoela; nahiz eta karlistak ez zirenen artean ere bazirela gehitu. Egia da karlistak Alemaniaren alde zirela, hein handi batez. Hori adierazten zuten *El Correo Español* egunkari karlistako testu anitzek. Fernando Diaz-Plajak bildu ditu artikuluz zatiak, liburu batean⁴⁷.

«Gran parte de las simpatías germanófilas de las derechas españolas se debe al recelo ante la Francia laica y revolucionaria», idatzi zuen Cirici Ventallok 1914ko uztailaren 30eko *El Correo Español* egunkarian. Horrela jarraitu zuen: «nos alegramos por Alemania, que tiene una bella oportunidad para realizar una buena obra moralizadora y desinfectante.» Zenbait egunen buruan, agorrilaren 8an, Gaspar Fajardok hau idatzi zuen: «La derrota de Alemania sería un gran mal para Europa y España. [...] Esperamos el triunfo de Alemania, y aunque no triunfase, hasta el fin la acompañara nuestra simpatía».

Spainiaiko karlista horiek Frantziaren laikotasun eta iraultzagatik ziren Alemaniaren alde, hein batez. *Eskualduna*-k Alemania girstinoogoa

zela ziotenei gogor erantzuten zien, beste artikulu batzuetan. Ohar horrek min egiten zion astekari girstinoari. Girstinotasunak garrantzia handia zuen astekari horretan, eta gerlari ere alde girstino handia ematen zion.

Eskualduna-k Hego Euskal Herriko eta Espainiako batzuek zuten Alemaniaren aldeko jarrera salatzen bazuen ere, azpimarratu behar da ez zirela denak alemanen alde. Baina, itxura guztien araber, artikulu honetan segurik, *Eskualduna* ez zen horretaz ohartu.

Eskualduna-ren ustez, Frantziaren kontra ziren euskaldunak istorio zaharreatatik ziren horrela:

Aitor-azue Napoleon Lehen zenaren egitateak Espainiari buruz ditudzuela oraino ezin iretsiak. Orduan hura zuentzat, Guillaume orai guretzat, bi gizon tirano hastial. Ehun urtheren buruan ez badetzazketzue haren hobenak ahantz, nola guk Guillaumen aitzinekoen hobenak, eta bereak azken gerlatik hunat? Hunek berak oraino ezpazangun gerlarik egin, nori esker? Haren gizontasunari ala gure pazientzia luzeari?

[...] Gu Frantzia aldeko *Eskualdunak* frantsesegi bagauzkatzue, Espainia aldeko eskualdunek,... zer erran zuetaz Espainia aldeko eskualdunek, baizik ere miletan zuzen gutiagoz, jakinean edo ez jakinean, alemanegi zaretela hor bilhakatuak?

[...] Gu bagine hutsean, gure baitharik ginitazke: zuek aldiz, Alemaniaren gezurrak errechkiegi sinetsirik⁴⁸.

Ehun bat urte lehenago izan ziren Napoleonen erasoak ziren Hego Euskal Herrikoek Frantziaren kontra zuten jarreraren esplikazioetarikoa bat, *Eskualduna*-ren ustez. Hala ere, artikulua horrek dena nahasten zuen. Orogen buru, alemanak aise sinestea leporatzen zien Hegoaldekoek. Eta horregatik, «alemanegi» bihurtu zirela kritikatzeko zuten. Aldi berean, Hegoaldekoek Ipar Euskal Herrikoak «frantsesegi» ikusteari ere erantzuten zion, azpimarratuz beren baitarik zirela frantses, hala nola beren hautuz.

Orogen buru, hemendik ateratzen den ondorioa da *Eskualduna*-k Euskal Herriaren bi aldeetako zatiketa politikoa azpimarratzen zuela. Hego Euskal Herrikoak ez zituen lagun politiko gisa ikusten, eta berak bere burua haiengandik bereizten zuen, bere burua frantses gisa aldarrikatuz eta Hegoaldekoak alemanizat jotz. Gerla garai hartan, frantsesen eta alemanen arteko zatiketa eta herra zein handia zen ikusiz, Hego Euskal Herrikoen eta Ipar Euskal Herrikoen arteko zatiketa termino horietan adieraztea, bien arteko arroila oraino gehiago handitzea zen.

Zatiketa politiko horrek ondorio zuzena zuen, Euskal Herriarentzako proiektuan ere. *Eskualduna*-rentzat Ipar Euskal Herrikoak frantsesak baziren, zergatik egingen zuten batasun politikoa Hego Euskal Herriko alemanizaleekin?

Euskal Herriko separatismo ideiak ere komentatzen zituen *Eskualduna*-k. 1914ko urriaren 23ko artikulua nagusia gai horrekin osatu zuen.

Eskualduna-a Euskal Herria Espainiatik eta Frantziatik bereiztearen eta estatu batu baten sortzearen aurka zegoen.

Anartean atsekabekin ikusten duguna, bihotzez egia, –mintzo nautzue eskualdun guzieri– hauche da: Espainia aldeko eta Frantzia aldeko *Eskualdunak* ez girela bethi orotaz bat: bereziki ez Eskuan-herriaren eta Espainiaren arteko batasun edo berechkunde delakoa, ez delakoaz, behar litaken ala ez.

Halaber hemen, gure alde huntan Frantziarekilakoa. [...]

Bainan goazin aldi aldikoaz. Egungo solasa dugu Frantziak, Eskual-herriak, Espainiak: bertze bien artean Eskualherria, bietarik berech, izaitez hala ez balinbada ere, hala behar litakela diote holetan. Eta nork? Espainiako aldean hanitzek, eta ez ahapeka. Hemen, Frantziako alde huntan ere ba omen bakar batzuek. Zonbatak? Egundaino ezin jakin dut. Oro batera emanik, othe dire hamar? Gehiago uste duena mintza. Nik ez nezakezue bortzez on egin. Biga baizik etzauzkit mementoan gogoratzen.

Espainia aldeko berri hanitz gutiago dakit, baina aski ba, jakiteko, eskualdun baizik nahi ez diren hanitz gehiago dela hemen baino han.

Beren ikustekoa dute, hangoek han berenaz; guk hemen gurez bezala.

Ikustekoa... zer duten edo luketen behar: ez gira hortan sartzen.

Ohiko fueros beren zuzenak, menderen mende gozatuak, aitzina bethi gozatuako zituztela hitze-

man behin eta gero hitza jana diote Espainiak. Hori gaizki. Zer ari diren ordean horren chuchentzeko erranez, deus ez dutela nahi Espainiarekin. Erraitea bezen errech balitz egitea!...

Eskualdun eskualzale hangotiar eta hemengotiar bilkura batean galdatu zioten bati –eztu ere aspaldi,– elhetik elhere: «Española zirea? –Ez, jauna –Frantsesa beraz? –Ez jauna. –Zer zira beraz –*Eskualduna* –Eskualdun frantses ala española –Bat ez bertze. –Beraz? –Beraz *Eskualduna*, ke karamba!»

Atheraldi pullita: nahuzue dezagun erran ederra? Eta gero? –Geroaren berri eztakigu, ez zuek ez guk.

Balethor egun bat, erresuma osoak pusketan eman litzazkena –gerla ondorioz edo bertzela– ezta noizpeit gertha ez ditakena, Eskualherriaren bi zathiek bat egitea, oraiko Frantses eta Español bi erresumetarik berech.

Batasun hoberik ez lakiguke guri.

Anhartean ez othe da guretzat aneiaki, elgarrekin bizitzerik?

Gobernamenduz, politikazko biziz bateratu arte, arrotz othe gira eta atze?

Nere burua nor nahi bezen eskualdun daukatarik, ene hitzean nago: berech izaiteko eztela aski erraitea: «Espainia bat da, Eskual herria bertze bat». Bainan hola zaiotenek hola erran bezate berentzat. Guk eskualdun frantsesek eztugu Frantziatik berechtea galdatzen: are gutiago erraiten ja bi direla Frantzia eta gure Eskual-herri hau?

Zer onik ginuke ere hortarik igurikitzeke? Erresuma ttipiak handiek ahamen batez janak ez dituguia ikusten? Horra zer zaion gerthatu azkenik hor Belgikari, handiago izan balitz gerthatuko ez zitzaiona.

Handitasunak eztu zuzena egiten, ba ordean, beharrez, laguntzen, azkartzen.

Ttipiturik, ederrak ginitazke, bi auzo handi, bata bertzea bezen gosen erdian, bietarik gu bereziak!

Otsoen hazkurri dire bildotsak;... chitoak miruen.

[...] Noizpeiko aspaldiko ethorkiz bat izanik ere, demborak berezi bagitu erresumaz: bi zathitan ezarri bagitu bi populu auzori eratchikiak, bien ararteko edo lokarri izaitea gu hiruen onetan ez litakea?

Gure ustez ba, elgarrekin bizi gaichtoan bizeitza baino hobe.

Ezkontzaz berechten zira, lehen auzo geldituz, burhaso eta haurridetarik,... ahultzen direa sor- etchearekilako lokarriak, ala luzatuz, hedatuz, azkartzen? –Ezta bardin. –Ez osoki: bainan hein batez, adichkidea, eza?⁴⁹

Artikulu hau Manex Hiriart-Urruty-k idatzi zuen, Xipri Arbelbideren arabera:

«Broussain, Constantin, Mendiboure, Dou- risboure, D'Andurein eta beste zenbaitek aipatua baitzuten alderdi abertzale bat sortzea... eta *Eskualduna* astekaria eskutan hartzea horretarako, Hiriart Urruty batere ez zen haiekilako.

Broussainen artikulua zentsuratuak ziren aste-karian agertu aintzin abertzale kutsua zuten bezen segur». Oraintxe aipatu artikulua «taldeño hori gogoan» idatzi zuela dio Xipri Arbelbidek. Alabaina, artikuluan aipatzen zuen Ipar Euskal Herrian ez zituela bost baino gehiago ezagutzen Euskal Herriaren batasuna aldarrikatzen zutenak.

Artikulu horrek biziki ongi adierazi zuen *Eskualduna*-ren eskizofrenia. Batetik zion, euskaldun guzien arteko batasuna baino ederragorik ez zitekeela izan. Bestetik, uste zuen, ezinezkoa zela, inguruko estatu handiek Euskal Herria laster errautsiko zuketelako, alemanek Belgikarekin egin bezala. Gerla testuinguru batean, ttipi izatearen beldurra argudio eraginkorra izan zitekeen Ipar Euskal Herriko euskaldunengan.

Ttipi izatea ahul izatea zelako argudioa arras zabaldua izan zen XX mendean Frantzian, bereziki independentzia gogoa erakusten zuten herriei erantzuteko. Ahuleziaren beldur hori eta Frantziaren baitan denak bilduz azkar izateko segurtamen hori zen *Eskualduna*-k lantzen zuena. Baina hori, historiak esplikatzen du, Peio Etcheverry-Aincharten arabera: «Si durant les siècles précédents le centre français, Paris, a centralisé pouvoirs politique et économique, le centre espagnol fixé à Madrid n'est resté que politique (un centre politique, en outre, en déclin).

«Or durant le XIXe siècle, la révolution industrielle consacre le développement économique de deux régions périphériques. La Catalogne

d'abord, connaît un essor important lié au secteur textile. De même, l'économie du Pays Basque sud se développe grâce à la construction navale et la production minière. Cela favorise le développement urbain, en particulier la région de Bilbao qui est propulsée au rang de grand centre industriel»⁵⁰.

Hor ageri da, Hego Euskal Herriko probintziak ez bezala, Ipar Euskal Herrikoak ekonomiki eta politikoki estatuko hiriburuaren menpe zirela. Menpekotasun horrek, dudarik gabe, azkar izateko batuak izan behar zirelako ustea areagotzen zuen. Horrekin, erran daiteke, frantses nortasunarenganako atxikimendua baino gehiago, «txikitatsun konplexua» zela *Eskualduna*-k adierazten zuena, eta frantses sentituz eta Frantzia gorai patuz zerbait handiagoren parte sentitzen zirela.

Hori zen gerlak ematen zion beldurra: Frantziak galtzen bazuen, puska ttipitan zatikatua izanen zela, beraz deuseztatua eta puska oro ahulduak. Gerlaren bukaera horrela ikusten zuen. Edo Alemania zatikatuko zen, edo Frantzia. Frantziarentzat nahi ez zuena nahi zuen, *Eskualduna*-k Alemaniarentzat.

Gerla hau da gudu bat iraunen duena, Frantziak edo Alamaniak leher egin arte, zatikatua izan arte. Hola bakarrik, bakea heldu denean, gutitu ahalko dire armadak; garhaitu erresuma hala lehertua eta biluzia izanen baita, non ez baituke luzaz indarririk bertzeari dichidu egiteko.

[...] Ene arabera, gerla hunen ondotik, hori gertatuko da: orai arte, hainbertze urthez hazi

diren armada handiak hainitzez gutituko direla, ez baita luzaz holako gerla baten beldurrik izanen. Zer irabazia, erresuma guzien budjetarentzat!

Horra beraz zerk has-arazi dion gerla hau Alamaniari: ezin gehiago bere armada izigarria haziz, nahi izan du, horren beharrik gehiago ez izaiteko, Frantzia oraikotik zatikatu eta ezeztatu, erresuma lerrotik histuz.

Itchura guzien arabera, bertzela gertatuko zaio. Hala da, gerla hau bururatzearekin ez da armada handi beharrik izanen. Bainan lehertua, zatikatua, erresumen lerrotik histua, ez du Frantzia ikusiren. Alamaniari berari gertatuko zaio hola.

Horren sinhesteko, aski dire egun hautako berriak irakurtzea. Bertzalde, ez diteke deus errechagorik. Ezen Alamanian elgarri behinere ongi josiak izan ez diren puskez egina da. Puska hoitarik bakotcha gogotik bere gain emanen da; egin ditezke hoiekin, Alamanian bakar baten orde, hogoi bat erresuma ttiki, elgarren ganik arras berechiak, bertzeentzat gehiago dichidu bat ez ditezkenak.

Lehenagoko mendeetan ere, hola zen Alamanian hortan; ez erresuma bakar bat, bainan erresuma berezi hanitz. Arrodak lehenagoko hein bererat itzuli behar du. Segur hola eginen dela oraikoan⁵¹.

Eskualduna-k ez zuen asmatu Alemaniari zer gertatuko zitzaion. Baina, asmatu ala ez, Alemania zatiturik eta ahuldurik ikusi nahi zuela adierazi zuen. Artikulu horretan ikusten denaren arabera, *Eskualduna*-ren logika hau zen: estatu batek balio zuen, handia eta batua baldin bazen; bestela

ahulegia zen eta ez zuen deusetako balio. Estatu handiak behar zirelako iritzia osoki barneratua zuen euskal astekariak. Logika horrekin, Euskal Herriak, estatu ttipi gisa, ez zukeen behar bezainbat pisu, eta ez zitekeen ona, ooren buru, euskaldunentzat.

Frantziako Errepublikaren zentralismoak eta XIX mendean zehar bereziki Alemaniarekin izandako gatazkek, frantses lurraldearen peko ziren guziak Parisi begira ezarri eta Frantziaren alde borrokatzera behartu zituen. Historia horren zama ageri zen *Eskualduna*-ren jarreran. Frantziak eta Alemaniak gerlak galdu edo irabazi baldin bazituzten, beren handitasunaren eta indarraren arabera izan zen. Estatu handiak ziren European, eta handien parean handi izan behar zelako ustea zabaldu zen. *Eskualduna* uste berekoa zen.

Frantses izatea aldarrikatzearen arrazoi nagusietariko bat estatu handi baten parte izan behar zelako segurtamena zen. Horregatik, *Eskualduna* ez zetorren bat euskal estatu baten ideiarekin. 1914ean, muga politikoa zinez handia zen Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean. Hego Euskal Herrian independentziaren aldeko jarrera handia zen; Ipar Euskal Herrian ez zegoen horrelakorik. Herriaren alde bakoitzaren bilakaerak arras desberdinak ziren ordu arte, eta ordutik landa ere.

Eskualduna-k frantses Estatuaren baitan egoteko egina zuen hautua ez zen, beharbada, hain lotua bihotzetik eta sentimenduetatik, nahiz eta jarrera gerlazalearen adierazpenak hala pentsatzera

bultza dezakeen. Erran daiteke *Eskualduna*-k Frantziarengan zuen atxikimendua pragmatikoa zela. Gerla franko izan zuen XIX mendetik landa, gerla mundialaren erdian, erresuma handiek ttipiak okupatu eta desegiten zituzten edo zitzaketen garaian, estatu handi baten parte sentitzea lasaigarriagoa zitzaion *Eskualduna*-ri. Euskal Herria sobera ttipi ikusten zuen ondoko erresuma handiei buru egin ahal izateko.

11. *Euzkadi*, neutraltasun
interesatua

Lehen Gerla Mundialak kezka handia sortu zuen, gerlan inplikatuak ez ziren herrialdeetan ere. Gerlaren lehertzea garrantzi handiko gertakaria zen, Hego Euskal Herrian ere. Ez zen, Ipar Euskal Herriko prentsan izan zitekeen bezala, aipagai bakarra, baina egunkari eta aldizkarietako orri anitz bete zen gerlako berriekin. *Euzkadi* egunkari jeltzaleak berri franko eskaintzen zuen gerla horri buruz; berri gehienak gazteleraz. Hala ere, bai gazteleraz, bai euskaraz, hainbat iritzi argitaratu zituen *Euzkadi*-k, maiz Kirikiñoren lumaren azpian.

Euzkadi, Hego Euskal Herriko egunkari jeltzalea, Espainia gerlan sartzearen aurka agertu zen. Espainia neutral agertzea ez zen espainiar eta euskaldun guztien gustukoa, batzuk Alemaniaren alde zirelako. Neutraltasuna arrisku gisa ikusten zuenik bazen, gerla bururatu ondoan, irabazlea edozein izanik ere, Espainiari neutraltasun hori ordainaraziko ziola pentsatuz.

Euzkadi egunkariak, ordea, jarrera neutrala Euskal Herriarentzat hobea zela uste zuen; babes-tuago sentituko zen.

Eskualduna-k jarrera gerlazalea erakutsi zuen bezala, *Euzkadi* gerlaren aurka agertu zen, gerla hasi aitzinetik. Gerla sufrimendu eta odol eragile dela salatuz, jarrera bakezalea hartu zuen. Horrek berak aditzera eman dezake neutraltasunaren aldeko iritzia.

Gerlak Euskal Herrian ukan zitzakeen ondorioek kezkek sortzen zituen, neutral izan ala ez. Alabaina, gerlak nolako bilakaera ukanen zuen, eta horren arabera ondorioak Euskal Herrian ere jasan zitezkeelako beldur zen *Euzkadi*. Baina, bereziki, alemanen edo frantsesen eta ingelesen alde jartzeak Euskal Herriarentzat zituzkeen ondorioek zuten gehien kezkatzen *Euzkadi*. Horregatik zen neutraltasunaren alde: Euskal Herriak ez zuelako holako gerla baten beharrik.

Euzkadi-k ez zuen gerlarik nahi. Inork ez du gerlarik nahi izaten, baina gerla egoera batean, gerlan inplikatuak zirenen jarrera gerlazaletik urrun zen *Euzkadi*. Gerla gauza penagarri eta txartzat zeukan, hasi aitzin ere; are gehiago, Hego Euskal Herria gerlak jasanik izana baitzen, aitzineko aldietan. *Euzkadi*-k desio zuena zen Europako gerla hori ez zela lehertuko. Horra zer zion 1914ko uztailaren 27ko artikuluko batean:

Izpar itxala dabil. Guda gorri inpernutarra urtengo ete dan gaur Europan bildurra dago. Ez al da egituko atzo ebillan zurrumurrua! Guzurtuko al da!

Doipuru ona, biyotza ausita, alegiñetan ei dabil ia eragozten daun guda deungea. Jaunak lagunduko al dautso!⁵²

Euzkadi-rentzat gerlaren larritasuna ederki adierazten zuen hitza zen «inpernutarra». Gerla infernuko zerbait balitz bezala aurkezten zuen; infernua, giristinoentzat izan daitekeen lekurik beldurgarriena eta txarrena, zeruaren kontrakoa,

Jainkoaren beste norabidekoa. Horregatik espero zuen Jainkoak gerla ez zedin gerta lagunduko zuela. Edo, hori otoizten zuen.

Ildo bertsukoa zen agorrilaren 25eko zenbaki-ko esaldi hau ere:

Madarikatubak guda ankerr au asmatu dabenak!⁵³

«Madarikatua» hitzarekin, gerla asmatu zutenak infernuarekin lotzen zituen. Madarikazioak badu, bistan denez, erlijio kutsua. Bestalde, gerla «ankerra» zela erranez, *Euzkadi*-k gerla hori bera anitz mespretxatzen zuen. *Eskualduna* astekarian ez zen horrelako hitzik gerla zehazterakoan.

Hona hemen, gaztelerazko artikulua batetik hartu esaldia, gerlak beldurra ematen zuela ziotenen ildokoa:

Hablamos ante la probabilidad cada dia más temerosa de un conflicto armado⁵⁴.

Erran daiteke, esaldi horretan eta aitzinekoan ageri zen gerlaren kontrako beldurra ez zela ego-zentrikoa. *Euzkadi*-k, artikulua horretan, ez zuen gerla horrek euskaldunentzat izan zezakeen ondorioen beldurrik aipatzen. Europa osoarentzako kezka zuen agertzen. Espainia neutraltasunera bidean zihoanean, Europako beste herrienganako pena eta elkartasuna ikusten ziren jarrera horretan.

Elkartasuna adierazten zuen sufritzen ari ziren jendeengan, besteak beste, eta bereziki, Ipar Euskal Herriko «anaiengan». Gerlak sortzen zituen sufrikarioak ziren *Euzkadi* hunkitzen zutenak.

Lerro otzek idazten nagon gelaraño datorrkit gure anayak disurrten negarr samiñen marrumen oyarzuna.

Ta negar gazi oken gazitasuna!!⁵⁵

Gerlan zirenen eta haien ahaideen mina zenbaterainokoa zen adierazten ahalegintzen zen *Euzkadi*. Sufrikarioa ikaragarria zela imajinatzen da bi esaldi horietan, «negar», «samin» eta «marruma» hitzak bat bestearen gibeletik lerrokatuz, hori baitzen eragiten zuen sentimendua. Halaber, negar horiek hain bide ziren ozenak non idazleak berak *entzuten* baitzituen.

Eskualduna-k ez zuen horrelako negarren berririk ematen. Pentsa daiteke *Euzkadi*-ko idazlea Ipar Euskal Herriko gudarien eta haien familien larruan jartzen zela, haiek sentitzen zutena irudikatzeke.

Erran behar da, Hego Euskal Herriko euskaldunek gerlaren berri bazutela, gerla karlistetan odol anitz isuriak zirela, eta armadaren konkista gerlek ere min handia egin zutela, *Euzkadi*-k, uztailaren 27ko artikuluan gogora ekartzen zuen bezala.

Una alianza con Alemania atraería sobre *Euzkadi*, sobre sus hijos, sobre su suelo, emapado con el sangre de las guerras carlistas, todos los horrores de la invasión de los ejércitos de tierra y mar⁵⁶.

Gerlako itsuskeriak eta odola aipatzen zituen *Euzkadi*-k, errateko euskaldunek horretarik aski

jasan zutela lehen ere. Espainia gerlan sartzeak erran nahiko zukeen euskaldunak beste gerla batean sartzea. Sufrikario hori ez zuen nahi *Euzkadi*-k, eta horregatik aipatzen zuen, artikulua horretan, Alemaniarekiko aliantza bat txarra izanen zela Euskal Herriarentzat.

Erran behar da karlistak (gehien bat), Alemaniaren alde jarri zirela. Baina, Espainian ez ziren denak Alemaniaren alde, ez eta ere gerlan parte hartzearen alde. Ororen buru, Espainiako Gobernuak neutraltasunaren bidea hautatu zuen, eta *Euzkadi* egunkarikoak arras kontent agertu ziren erabaki horrekin:

Sostenemos, pues, que el Gobierno español merece nuestro sincero aplauso por hallarse en las presentes circunstancias desligado de todo compromiso que pueda atraernos la enemistad de Francia é Inglaterra. Y repetimos la razón única de nuestra actitud. Queremos paz con todos porque las presentes guerras son ante todo monstruosos atentados contra la justicia⁵⁷.

Batetik, *Euzkadi* poztu zen Frantziarekin eta Ingalaterrarekin ez zelako etsaigoan sartuko. Baina artikulua horren arabera, *Euzkadi*-ren bakezaletasunak humanitarioa baizik ez zela zirudikeen, gerlak «justiziaren kontrako atentatu salbaiak» zirelakoan. Orainokoa ez zen ageri arrazoi pragmatiko anitz, ideologikoak eta moralak bakarrik. Argi da, hala ere, Frantziaren eta Ingalaterraren etsaigotik urrun egon nahi izateak bazuela moralaz aparteko beste arrazoirik. *Euzkadi*-tentsar, «hobe» zen, Espainia neutro izan zedin:

- Berriro? Egun otan eztegu besterik ikusten guda ta guda baizik zure Eguneko zirtzil oyetan.
- Egunerko egunekuagorik eztago ba. Guda beltz orrek kezkaz beterik gauzka gustiyok eta gure goguak osoro azken dizkigu. [...]
- Eta emen ez ote degu beldur-ziyoric?
- Ala diyote, ala diyo Gobernuak berak ere; España laterriya eztala jarriko iñoren aldez, geldi egongo dala.
- Obe da.
- Bai, obe⁵⁸.

Artikulu horretan berean azaltzen zuen zergatik zen «hobe». Arrazoietariko bat zen Espainiak itsasoan gaindi lasai ibiltzeko ahala bazuela, Ingalaterraren babesari esker. Baina horrek ere kezka bat sortzen zion *Euzkadi*-ri. Babes horren truke, Ingalaterrak 200.000 soldadu igortzeko eskatzen bazion zer egin behar ote zitekeen kezka erakustera ematen zuen *Euzkadi*-k.

Espainia Frantziaren etsai bihurtzen bazen, horrek euskal kostaldearentzat ondorio larriak zituzkeela zion *Euzkadi*-k:

los fronteras de Gipuzkoa sufrirían los daños inmensos de las primeras embestidas, expondiéndose á los incalculables de la ocupación francesa, y nuestras costas abiertas habrían de hallarse á merced de las escuadras anglo-francesas⁵⁹.

Espainia gerlan sartzen bazen, eta Alemanen alde, euskal kostaldeak frantses eta ingeles armaden menpe zeudekeelako kezka erakutsi zuen. Baina kontraesana ere bazuen. Espainiak Frantziarekiko edozein jarrera harturik ere, Euskal Herriarentzat ez zukeela gauza anitz aldatuko gehitu zuen *Euzkadi*-k, artikulu horretan, lerro batzuk urrunago:

Pero si estalla, sean cuales fueran los compromisos de España con Francia, los vascos nos hallaremos alejados del centro de ciclón. Harto trabajo tendrá sobre sí la escuadra alemana frente á la inglesa en los mares del Norte, para visitar nuestras costas; y los regimientos prusianos deberán haber aniquilado á Francia si quieren cumplir el capricho de bañarse en el Adur y el Bidasoa. Para entonces se habrá firmado la paz.

Gerla Euskal Herritik urrun gertatzen ari zelako ideiak lasaitzen zuen *Euzkadi*, batetik. Beraz kezkak ez ziren beti ulertzen.

Alemanen kontra lerrokatuz gero, edo neutral egonez gero, Alemanak Espainiarengana –eta ondorioz Euskal Herriarengana– bihur zitezkeelako beldurra ere ez zuen saihesten *Euzkadi*-k:

– eta gogoratu ezazu Doitxe k purrukatzen dula Pantze gustiya, arrotzen dala gaur dan baño geyago, ta esaten diyola España-laterriyari: zu ere nere etsaya zera ta al detan kaltia egingo dizut.

- Urruti gaude; beldur gutxi orregatik. Guganaño eltzeko bide aundiyak egin biar ditu.
- Zaude oraindik⁶⁰.

Neutraltasun horren barnean, *Euzkadi* hain neutrala ere ez zen. Gerla aitzinatu arau, alemanen kontrako jarrera gero eta garbiagoa zuen. Hots, Frantziarengandik eta Ingalaterrarengandik hurbilago sendi zuen bere burua *Euzkadi*-k.

Pentsa zitekeen Hego Euskal Herrian alemanengandik hurbilago izan zitezkeela, gerla garaian. Baina hori ez zen beti horrela izan. *Euzkadi* egunkariaren kasuan, konkretuki, egunez egun ageri zen Alemaniarekiko biziki kritikiko zirela. Batetik, alemanek gerla denboran egiten zituzten krimenak salatzen zituen *Euzkadi*-k. Hori baino gehiago, alemanen alde zeuden euskaldunen kontra ere mintzo zen.

Gerla hasi aitzin ere hitz gogorak erabiltzen zituen *Euzkadi*-k alemanen eta austriarren aurka. Uztailaren 27ko zenbakian, Austria-Hungariak Serbia inbaditzeko egiten zituen mehatxuez hau komentatu zuen:

Ignoramos en los momentos en que comenzamos á escribir, si ha estallado la guerra europea ó si cediendo Serbia á las brutales amenazas de Austria se ha conjurado por el momento, con un nuevo triunfo de la fuerza la paz del mundo.

Austriaren «mehatxu bortitzak» aipatuz, *Euzkadi*-k Austria ezartzen zuen gaiztoen lerroan.

Zenbaki gehienetan ageri da *Euzkadi*-k Serbiari zion begirunea eta atxikimendua. Beraz, Serbiarekiko elkartasun horren gibelean, Austriaren eta Alemaniaren aurkako jarrera bat bazen.

Dena den, Alemaniaren kontrako jarrera beste gisan ere agertzen zen. Hain zuzen, Alemaniak Belgika inbaditu izana biziki begi txarrez ikusten zuen *Euzkadi*-k, Kirikiñoren artikulua batean agertzen zen bezala:

Alemania Belgika garaituz, bakean dagoen herri «makala» joz, errexki lortu duela gudari ikaragarriaren ospea. Baina hori ez dela merezimendu bat. Ahulenaren kontra errexka dela⁶¹.

Ezin da erran esaldi hori bereziki bortitza denik Alemaniaren aurka. Hala ere, ez da Alemaniaren aldeko komentarioa. Ongi azpimarratzen du Belgika bakean zegoen herria zela, eta gainera ttipia edo ahula («makala» hitzarekin uler daitekeen bezala). Hori egitea ez zela merezimendua azpimarratu zuen Kirikiñok. Kritikak ez ziren *Eskualduna*-renak bezain gogor eta bortitzak, baina gertakariaren aurkezpena horrela planteatuz soilik ageri da Alemaniaren jarrera ez zuela begi onez ikusten.

Arras gogorragoak ziren 1915eko urtarrilaren 22ko artikuluko komentarioak. Horiek ere Kirikiñoren artikulua batetik hartuak dira. Inglaterraren kontrako erasoak komentatzen zuen.

Doistarrak gabez ixil-ixillik. Ipar-Itxasura igaro dabe egaizki-tramankuluetan, eldu dira Ingalan-

da ko itxaso-ertzera, ta ango errijen ganera: «Orr juak, ilten dana il daitela!» jaurti dabez bonbak eta erail dabez emakumak, umiak, izkillobako gixonak; auxe eginda, arin atzera euren erri-aldera eguna zabaldu orduko, arrapau eztayezan. Orrek zer dira? Eta eurak bidaldu ditubenak zer dira?

- Gixona ba... orretara gauzak ipiñi ezkeru...
- Ez ibili emen aiko-maikoetan, kana bategaz neurtu danak. Orretariko gaizkintzak darabiltzan errija ezin leike izan gure begikua. Ori, basatikerija da⁶².

Lehengo parrafoan erakusten zuen, Kirikiñok, eszena bortitza izan zela. Bortizkeria hori gordinki deskribatu zuen. Gauaz, alemanak beren hegatzkinekin Ingalaterrako itsas bazterrera joan zirela eta han emazteak eta haurrak hil zituztela bonbak botaz, kontatu zuen *Euzkadi*-k. Horrekin bakarrik, alemanak gaiztoen lerroan ezartzen zituela nabaria da; gaizto baino gehiago, salbaien lerroan. Eta funtsean, konklusio gisa argitzen zuen, Kirikiñok, bere ustez, alemanek egin zutena «basatikeria» edo «salbaikeria» zela.

Alemanei buruz termino horiek erabiltzen zituena ez zitekeen alemanen aldekoa izan, inondik ere. *Eskualduna*-k Hego Euskal Herriko euskaldunei alemanen aldeko jarrera ukaitea leporatzen bazien, ez zebilen osoki xuxen. Ezin zien horrelakorik leporatu jeltzaleen egunkaria idazten zutenei. *Euzkadi* ez zen Alemaniaren aldekoa.

Euzkadi ez zela Alemaniaren aldeko egunkaria oraino garbiago frogatzeko elementu bat eskaini zuen, *Napartarra* Nafarroako aldizkari jeltzaleak argitaratu artikulu batek. *Euzkadi*-n argitaratu artikulu bat berriz hartu zuen aldizkari hark, «Neutralidad criminal» izenburukoa.

Euzkadi-k Serbiarengan elkartasuna erakutsi zuen. Austria Serbiaren etsaia izanik, *Euzkadi*-k Austriaren aurkako nazka erakusten zuen. Logika hori bururaino eramanez, Alemania Austriaren aldekoa izateagatik, Alemaniaren aurka ere izan behar zela zion *Euzkadi*-k.

Si Austria dominadora y enemiga de Servia, excita nuestra repulsión, idéntico sentimiento debe causarnos Alemania, unida á Austria y sosteniéndola en un impía obra imperialista. Todo cuanto vemos manifestado, condenando el proceder de Austria, debe aplicarse literalmente, á Alemania. Declararnos neutrales cuando padece, gravísimamente, una nación defendiendo su independencia y con ella el principio de su nacionalidad, tanto monta como la declaración de que nos desliguemos de los vínculos y deberen anejos á la profesión de la doctrina nacionalista.

Serbiarekiko elkartasuna adierazten zuen *Euzkadi*-k, «bere independentzia defenditzen duen nazio» gisa. Nazio ttipia izanik –Euskal Herria bezala– Serbiarekiko atxikimendua edo hurbiltasun sentipena oraino handiagoa zen. Pentsa daiteke, Euskal Herria Serbiarekin identifikatzen

zuela; ez zukeela nahi Euskal Herriak gisa bereko zerbait jasan zezan.

Horregatik, *Euzkadi*-rentzat, onartezina zen horrelako gauzak «neutraltasunez» pasatzen uztea, neutrala izatea holako jarrerak onartzea edo babestea zelakoan. Horregatik zion, artikulua luze bateko pasarte horretan eta artikulua bereko beste pasarteetan, ez zitekeela neutral egon horrelako erasoen aurrean.

Gerlaren hastapenean neutraltasunaren aldeko jarrera ikus bazitekeen ere, artikulua horretan beste jarrera bat ageri da. Horrekin ezin da ondorioztatu *Euzkadi* gerlan sartzearen alde bihurtu zenik, baina ondoriozta daiteke, berriz ere, Alemaniaren kontra agertzen zela. Ez da aski errateko Frantziaren eta Ingalaterraren alde zela, baina urrats inportantea da, ondorio horretara heltzeko.

Horrez gain, Hego Euskal Herrian alemanen bertsioarekin bat egiten zutenei Alemaniaren alde izatea leporatzen zien *Euzkadi*-k, 1915eko otsailaren 28ko artikulua batean:

Orain doixtarrak dabilz, bakian dagozan Errijetako itxastarrak bildurteko alegiñetan, guzur asko zabaldurik onenbeste eta orrenbeste ontzi galdu dirala, ta itxaspe-ontzizak urriñetaraño sakabanatu dirala, ta erlia baño ugarijago dirala, ta zorakeri bat dala Ingalanda'ra juan gura ixatia, ija eskier edo seguru dala galtzia ta.

Ementxe be zabaldu zan arañegun guzurra, biribila gero, itxaspe-ontzi bat ikusi zala Algortatik urrtxo. Arra beteko izki edo letrakaz argi-

taldu eben guzur ori emengo izparringi batzuk.
[...]

Emengo itxastarra ikaratu gura dabe, igarri-igarrijan izparringi orrek, ia emendik Ingalanda'rako ontzizei galazko al dautsien arantza juatia. Doixterrija'ren aldez dabilz beraz.

Ohargarria da alemanen bertsioa gezurtzat jotzen zuela *Euzkadi*-k. Kasu honetan, herri neutraletako itsas-ontziek hobe zutela Ingalaterrara ez joatea zioten alemanek, *Euzkadi*-k eman berriaren arabera. Itsasoa arriskutsuegi zela eta ontzi anitz desagertu zelako berria zabaldu zuten alemanek. *Euzkadi*-k zion hori gezurra zela, eta horren helburu bakarra Euskal Herria bezalako herrialde neutraletako itsas-ontziak portuan egotera bultzatzea zela.

«Gezur» horiek Euskal Herriko hedabide batzuek ere zabaldu zituztela kritikatu zuen *Euzkadi*-k. Berri horiek zabaltzen ari ziren egunkariei alemanen alde aritzea leporatzen zien. Horrekin ageri da egunkari jeltzaleak ez zuela bere burua Alemaniaren alde ezartzen zituen horien lerroan kokatzen.

Beste hainbeste erran daiteke *Napartarra* aldizkariaz ere. *Euzkadi*-ren ildo politiko bereko aldizkari horrek, *Correo Español* egunkaria alemanen aldekoa zela salatzen zuen, ironia puntu batekin:

Zu «barkazioakin» noren aldez zaude? Noren zalea zera? Panzizta.

Ori dek egokiena gizona, ala erran nion gud-
arazu auetan pantzizta zala erran zian
baserritarri.

Bañan... «Correo Española» zelako alemanzalea
eh! Ez al zera oartu? Alemaniaren aldez bi begiak
emango omen lituzke. Or konpon Mari-Anton,
Karlostar jaunak. Barkazio akin. D. Jaime noren
aldez dago? Azkeneko egun auetan nor dira
lagundu ditunak? Alemanakin onien dago ala
diote bere jarrileak; egia ote da? Nik eztakit
bañan ixo, ixo, ez erran iñori eh? Pranzera omen
da. Ez omen ditu beste aldekuak ikusi nai. Ez
gero erran iñori prantzera dala?⁶³

Karlsitak alemanen alde izatea kritikatzan
zuen. Alabaina, Don Jaime karlisten burua
Frantziaren alde zegoela komentatu zuen, segidan.
Ironiaz erran zuen hori, *Correo Español*-eko
karlista alemanzaleez, beren alemanzaletasuna-
gatik, trufatzeko.

Artikuluaren idazleak ahoan bilorik gabe zion
ongi zitzaiola frantsesen alde izatea. Frantziaren
alde zegoela erran zion laborari bati «hori dek
egokiena» erantzunez, argi uzten zuen, Frantziaren
alde izan behar zela. «Egokia» hitzak galderak sor-
ditzake. Hitz horren gibelean, jarrera alderdikoi,
sentimental edo ideologiko bat baino gehiago,
jarrera pragmatiko bat ikus daiteke. Hego Euskal
Herriarentzat hobe zen, egokiago zelako, Frantzia-
ren alde jartzea.

Argi ageri da Eusko Alderdi Jeltzalea, *Euzkadi*
eta *Napartarra* aldizkarien ahotan, ez zela Alema-
niaren aldekoa, 1914-1918ko gerla hasi zenean. Ez

zuen bat egiten Alemaniaren eta Austriaren jokamoldeekin; gogor kritikatzten zituen. Ez zuen bat egiten Alemaniaren alde ziren euskaldunekin eta Euskal Herriko hedabideekin. Ez zitzaion ongi iruditzen neutral egotea, Alemaniaren eta Austriaren erasoan aurrean. Independentziarik gabeko nazio ttipi baten ikuspegitik ere mintzo zen; Serbiari eta Belgikari zion elkartasuna horren lekuko izan daiteke. Hots, horren gibelean, Euskal Herriaren aldeko jarrera abertzalea zegoela erran daiteke, euskaldun gisa, bereziki ongi ulertzen zuelako zer senti zezaketen Belgikak eta Serbiak, etsaiek inbaditua izanik edo ia inbadituak izanik.

Ezin da erran Frantziarenganako elkartasunik edo Frantziaren aldeko jarrera politikorik aurkitzen zenik *Euzkadi* egunkarian. Baina *Euzkadi*-k nahiago zuen Frantziak eta Ingalaterrak irabaz zezaten. Hautu horren esplikazioa arrazoi geoestrategikoen ematen zuten.

Batetik, arrazoi ekonomikoak ikusten zituen *Euzkadi*-k, Frantzia eta Ingalaterra nagusitzearen alde izateko. Horren adibide garbia zen, 1915ean Itsaso Beltzaren inguruan, Frantziak eta Ingalaterrak bataila batzuk irabaztearen alde izateko arrazoia. Bosforo itsas pasaia ingelesaren eta frantsearen esku izan zedin nahi zuen *Euzkadi*-k, horrela janaria errazago helduko zelako Europa Mendebaldera, eta beraz, Euskal Herrira.

Ixen du daun itxas-estunia ija arrapau dabe pantzetar ta ingalandar gudontzijak, gero errazago arrapatuko dabe Bosporo deritxon estunia

Konstantinopoli uri ospetsubaz, turkarrak orretara Europa'tik at bidaldurik noz-edo-noz!

Dardaneleta ko gurenda orregaz onurea dau emengo alde gustijak, esan gura dogu Europasartalde gusti onek. Ara zergaitik: Errusi ko Odessa'tik, eta Errumani ko Braila'tik (biak Itxaso Baltz'eko izturi edo portuak), gari asko ekartzen da alde onetara; guda madarikatu au dala ta, turkarrak ito egin dabe gari-ekarte ori, Bosporo ta Dardaneleta'ren jabiak diralako; orain pantzetar-ingalandarrak itxas-estuna orrek idigita, asiko da onantz etorten Errusi ta Errumaniko garija, ta asko ei dago salgei.

Ona ba zetatik ondo datorkigun Dardaneleta orren jabe egitia pantzetar-ingalandar itxas-gudarijak⁶⁴.

Artikulu horretan argi eta garbi adierazten zuen, *Euzkadi*-k, Frantzia eta Ingalaterra itsas pasaia horren jabe egitearen interesa, ekonomikoa zela. Errumaniako eta Errusiako garia turkietrek blokatzen zutela-eta, pasaia hori libratuz gero, garia helduko zela ikusten zuen *Euzkadi*-k. Hor ez da ikusten Frantziaren eta Ingalaterraren aldeko jarrera politikorik, baizik eta Euskal Herriari begirako kezka ekonomikoa. Hots, Euskal Herriaren kokapen geografikoak egiten zuen *Euzkadi*-ri gehiago interesatzen zaiola Frantzia eta Ingalaterra nagusitzea.

Beste pasarte batean ere ikusten da Euskal Herria zela *Euzkadi*-ri oroz gaintetik interesatzen zitzaiona. Horra zergatik nahi zuen bakea Frantziarekin eta Ingalaterrarekin:

queremos, en especial, la paz con Francia e Inglaterra, porque la vecindad de *Euzkadi* á Francia y su situacion marítima, la guerra significa la muerte de millones de vascos, la lucha horrible fratricida de los vascos peninsulenes y transpirenaicos, la ruina de nuestra industria, el bombardeo de nuestras ciudades, la desolación de los campos y la destrucción de la patria⁶⁵.

Hemen ez zuen aipatzen Frantziarekiko eta Ingalaterrarekiko bakearen interesa haiekiko adostasunak eragiten zuela. Ez zuen horrelako deus aipatzen. Berriz ere, Euskal Herriaren ikuspegitik mintzo zen *Euzkadi*. Ikusten zuen Euskal Herriarentzat arriskutsua izan zitekeela bi estatu horiekin gerlan izatea. Euskaldunak gerlara joateak euskaldun anitzen herioa eragin zezakeelako, euskal industria desegin zitekeelako, euskal hiriak bonbardatuak izan zitezkeelako eta, ooren buru, aberria suntsi zitekeelako.

Horrekin ere frogatzen da *Euzkadi* Euskal Herriari begira zegoela, interes bakarra edo nagusia Euskal Herria zuela. Ooren buru, Alemaniaren kontrako kritikak gora behera, erran daiteke gerla hori aski distantziarekin hartzen zuela, eta ez inplikatzeko arrazoi nagusia Euskal Herriaren biziraupena segurtatzea zela.

Beste arrisku bat ere ikusten zion *Euzkadi*-k Frantziaren eta Ingalaterraren aurka jartzeari: Ipar Euskal Herriko euskaldunen kontra gerla egitea. Horrelakorik ez zuen nahi *Euzkadi*-k;

dударик gabe, jarrera abertzale bat zegoen horren gibelean:

Hablamos ante la probabilidad cada día más temerosa de un conflicto armado, en el que pudiéramos vernos envueltos, y esta consideración, unida á la situación del territorio vasco, arraiga más y más en el ánimo, el convencimiento de que una inteligencia del Estado español con el alemán sería luctuosa para los vascos. [...]

Una alianza con Alemania atraería sobre *Euzkadi*, sobre sus hijos, sobre su suelo, emapado con el sangre de las guerras carlistas, todos los horrores de la invasión de los ejércitos de tierra y mar.

Los vascos de un lado y otro de Bidasoa se verían en el trance cruel de despedazarse los unos, contra los otros⁶⁶.

Pasarte horrek erakusten du horrelako gerla batean sartzea «euskaldunen arteko gudua» sortzea zitekeela salatzen zuela *Euzkadi*-k. Hemen ere ikusten da gerlan ez sartzearen hautua, hautu abertzalea zela, Euskal Herriaren interesen arabera hautua. *Euzkadi*-rentzat, ez zen duda izpirik, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako euskaldunekin batera, aberri bakarra osatzen zutela, herri bakarra zela. Herri eta aberri bereko herritar eta aberkideak elkarren aurka borrokatzen ikusi baino nahiago zuen gerlan ez parte hartu.

12. Iparraldeko aberkideak

Euzkadi-ren euskal abertzaletasunak eta nazio kontzeptuak Ipar Euskal Herria Euskal Herriaren parte gisa hartzera bultzatzen zuen. *Euzkadi*-rentzat, Ipar Euskal Herrikoek drama bat bizi zuten; pena zuen bere aberkideak gerlara zoazelako. Hor agertzen da, *Euzkadi*-rentzat, Ipar Euskal Herriko euskaldunen nazio erreferentziak Euskal Herria behar zuela izan. *Eskualduna*-ren diskurtsotik urrun gelditzen da.

Gerlarako mobilizazioak eragiten zuen atseka-bea deskribatzen zuen *Euzkadi*-k. Alde ilun anitz aipatzen zituen; horietan lehena, gerlak berak zekarren odol eta sufrikarioa ziren. Bere artikuluetan «Laburdi», «Be-Naparra» eta «Zuberoa» aipatzen zituen; ez zuen inoiz «Ipar Euskal Herria» edo «Iparraldea» terminorik erabili. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako «anai maite[ez]» mintzo zenean, gerlan izateagatik zuten pena zen *Euzkadi*-ri burura zetorkiona.

Gure anai maite gaxo oriken artean negarr samiña ta eriozko ituntasuna bertzerik ez dago. Guda odolтийaz edestiya mintzo zaigu ta ontorio beltz ikaragarriaz, baño oraiko onen antzerik ez bide dute⁶⁷.

Ikusten da zer hitz ilunak erabiltzen zituen *Euzkadi*-k, gerla horretaz mintzatzeko: «negarr samiña» da sufrimenduaren adierazle handienetari-koa. Ez da hau, Ipar Euskal Herriko anaiek giten

zuketen negar samina aipatzen zuen pasarte bakarra. Ez zuen gerla desdramatizatzen, *Eskualduna*-k egin zezakeen bezala. «Guda» izenari «odoltiya» adjektiboa lotzea da horren lekuko. Halaber, gudaren «ondorio beltz ikaragarria» aipatzeak ere erakusten zuen gerlak zer beldurrak eragiten zizkion *Euzkadi*-ri.

Hurrengo pasartean ere aipatzen zuen *Euzkadi*-k «negarra», «guda beltza» eta odola. Gerlari ondorio beltzak eta txarrak baizik ez zizkion ikusten. Eta ondoko lerroetan agertuko den pasartean ageri da gerlara ez joatea bera begi onez ikusten zuela *Euzkadi*-k:

Au guda gertumenen negarra; guda beltzarena ta ondokoak nolakoak ote? Odol odolezkoak. Multxo zenbait etorri dire gure arterat: ez dute atea yoka ari bear izandu; zabal zabalik zauzkiten, senide arterat etorri dire ta ez arrotz errirat: utzi duten ogi biguñia ezpada batzaxea-goa izanen dute anai maitetasuna⁶⁸.

Pasarte hau Ipar Euskal Herriko herritarrei buruzko artikulu batetik hartua da. Hor ikusten dena da bazirela batzuk Hego Euskal Herrira joan zirenak, gerlari ihesi, itxura guztien arabera. Batetik, ageri da atea «zabal zabalik» zituztela, hots, Hego Euskal Herrikoek Ipar Euskal Herriko desertoreak besoak zabalik hartu zituztela. *Eskualduna* irakurriz, pentsa zitekeen, Hegoaldekoek ere ez zituztela begi onez hartzen desertoreak. Pasarte horrek *Eskualduna*-ren ustea dudan ezartzeko balio du.

Hortik harago, atxikimenduaren eta elkartasunaren adierazle da atek zabalik izate hori. Hala-ber, «senide arterat» etorri zirela azpimarratzea eta ez zirela «arrotz» herrira jin zehaztea elkartasun eta atxikimendu horren adierazle handiak dira, baita ere. Ez zirela herri «arrotz» batean zehazteak erakusten du Euskal Herri osoa herri bakar gisa ikusten zuela *Euzkadi*-k.

Gerlak zuen beste ondorio bat ere ongi deskribatzen zuen *Euzkadi*-k: Ipar Euskal Herriko herrien hustea. Hori bera ere penagarri zitzaion *Euzkadi*-ri. Ikuspegi abertzalearen logikatik, herri baten hustea eta dinamika guzia galtzea, herri horrentzako kaltegarri dela erakustera ematen du. Huste hori onartutako sakrifizio beharrezko gisa aurkeztu zuen *Eskualduna*-k. Beste tonorik du *Euzkadi*-ren pasarte honek:

Laburdi ko uri iri ederr aberatsak zertaratu dituen gudu otsak! Eta orobat Be-Naparra ta Zubero koak ildokiak dirudite.

Gaztedirik gabe gelditu dire; anei aneika artarik gabe daude umeak eta gautik goizerat alarguntz negarra dariotela dabiltz ezin zenbatu ala emazte.

Gogorrik gogorrena ta miñik miñena! Aunitz eta aunitz erri apezik gabe gelditu dire: ok ere orok gudara; berrogei ta bortz urte bete ez dituzten guztiek.

Jainko ona! Urrikalztea gure euzkeldun anai gaxo otaz⁶⁹.

Zati horretan ikusten da herrien hustea zein gauza triste eta larrizat zeukan *Euzkadi*-k. Herriak zinez egoera tristean jarri zirela erakusten zuen gerlak «iri ederr aberatsak zertaratu dituen» esaldian. Gerla hasi arte hiri horiek eder eta aberatsak zirela erakustera ematen du. Gerlaren ondorioz, edertasun eta aberastasun hori guziaz galdu zutela deitoratzen zuen *Euzkadi* egunkariak. Herriak gazterik gabe gelditzea bera penagarritzat zeukan egunkari horrek, gazterik gabeko herria dinamika apaleko herria zela aditzera emanaz, lerro horien gibeletik.

Herriak apezik gabe gelditzeagatik zeukan pena handiena egunkari abertzale eta giristino horrek. Apezak gerlara joatea tristeziatzat zeukan; herriak apezik gabe gelditzea dinamika galtzea eta arimarik gabe gelditzea balitz bezala. Giristinoentzat, herrian apezak izateak garrantzia handia duenez, guztiz logikoa da *Euzkadi*-k larrizat hartzea apezik ez gelditzea.

Herriaren huste horren pena erakusten du beste egun bateko artikuluko bateko pasarte honek ere:

Un querido amigo nuestro, residente en Sara (Laburdi), nos ha referido escenas tristísimas ocurridos en los pueblos vascos del otro lado del Pirineo, con motivo de la movilización francesa.

Los caseríos están desiertos. Sólo quedan las mujeres y los viejos⁷⁰.

Aitzineko artikuluaaren ildotik, artikuluko honek azpimarratzen du laborari etxeak hutsik zeudela; hots herriko ekonomiaren eta biziaren zati

inportantea geldirik zegoela. Emazteak eta gizon zaharrak baizik ez zirela gelditzen zehazten du. Iduri luke emazteak ez zirela baserriko lanen egiteko gai; *Eskualduna*-k gai zirela idazten zuen. Baina orduko idazleek emazte laborariez zuten irudiaren irakurketa horietan sartu gabe, ondoriozta daitekeena da *Euzkadi*-k, oro har, herriaren husteraren alde guztiak aipatzen zituela, zerbait biziki ilun bezala.

Horrez gain eta bereziki, gerlara joateko mobilizazioak une izugarri tristeak eragin zituela kontatzen du artikulu horrek, Sarako lagun baten lekukotasunetik abiaturik. Ez da argi ea Sarako lagun horren hitza zen «escenas tristicimas» ala idazleak zuen interpretazio hori egin; bego idazlearen iritzia dela erratearekin. Argi da, *Euzkadi*-rentzat, mobilizazio hori biziki gauza tristea izan zela. Urrun zegoen *Eskualduna*-ren mezu animatzailetik. *Eskualduna*-rentzat mobilizazioko uneak «bihotz altxagarri» baldin baziren, *Euzkadi*-rentzat guziz kontrakoa zen.

Euzkadi-k gerlari begira zuen hoztasun horrek Ipar Euskal Herrikoenganako atxikimendu eta atsekabetze horrek erakusten zuen jarrera abertzalea. Logika badu. *Euzkadi* egunkari abertzalea baldin baten, eta Ipar Euskal Herria euskal abertzarien parte ikusten bazuen, ez zuen bidezko ikusten Frantziaren alde gerla egin zezaten; Ipar Euskal Herriak galtzen zuena ikusten zuen, ez Frantziak irabaz zezakeena.

Ipar Euskal Herriko euskaldunak «Pirinioz bestaldeko euskaldun» gisa aurkeztu zituen. Ez

zuen erabili «frantses euskaldun» terminorik, *Eskualduna*-k erabiltzen zuen bezala. Horrek ere erakusten du Ipar Euskal Herriarenganako atxikimendu hori herri bakar gisa ikusten zuen eremu bateko zati batenganako atxikimendua zela.

Euzkadi egunkari abertzalearentzat, euskal aberria zazpi herrialdek osatzen zutela erakusten du Ipar Euskal Herriaz mintzatzeko zuen moldeak. Bere diskurtso abertzalean, Ipar Euskal Herria ez zuen euskal aberritik baztertzen. Euskal aberriaren aldarrikapenean zazpi herrialde historikoak sartzen zituen *Euzkadi*-k, Euskal Herria Espainiaren eta Frantziaren artean bereizita izatea kontuan hartu gabe.

Ipar Euskal Herriko herritarrak aberkide eta ahaide gisa aurkezten zituen *Euzkadi*-k, behin eta berriz eta sistematikoki. Hori bera aski litzateke baieztatzeko *Euzkadi*-rentzat denek aberri bera osatzen zutela. Baina bigarren elementu bat ere bada, biziki inportantea. *Euzkadi*-rentzat, *Eskualduna*-rentzat ez bezala, euskal gudariak herri arrotz batentzat hiltzen ari ziren. Horrek erakutsiko du, *Euzkadi*-ren iritziz, gerla hori zein drama handia zen euskaldunentzat.

Euzkadi-n ez zen «euskaldun frantsesak» edo «euskaldun espainolak» bezalako terminorik. Hainbat adibideren bidez ikusten da anai gisa hartzeaz gain, aberkide gisa ere hartzen zituztela.

Badakizu irakurlea, daipatzudan anai ok Pantze laterrpean bizi diren gure euzko senideak direla.

Astero banabil emen anai maitien izperr onak eman nairik, baño nere asmoak egixko utsak ateratzen zaizkit⁷¹.

Bi esaldi barne, bi aldiz erabiltzen zuen «anai» hitza eta behin «senide» hitza, Ipar Euskal Herriko euskaldunak aipatzeko. Zinez erakusten zuen nolako atxikimendua eta urrikalmendua zuen haiei begira. Euskaldun horiek «Pantze laterrean» (frantses erresumaren menpe) bizi zirela erranez, argi erakusten du, *Euzkadi*-ren iritziz, Iparraldeko euskaldunak ez zirela frantses beren borondatez edo naturaltasunez, baizik eta Frantziarenganako menpekotasunez. «Pean» hitz horrekin erakusten zuen menpekotasunaren ideia hori.

Hori hola aurkeztea, planteamendu abertzalea zen, dudarik gabe. Horren gibelean zegoen mezua zen, Ipar Euskal Herria euskal aberriaren parte zela, eta zuzen kontra zegoela Frantziaren esku, herri zapaldua zela. Diskurtso abertzalea zen; *Eskualduna*-k ez zuen holako diskurtsorik.

Ondoko lerroetako pasartea Kirikiñoren artikulua batetik hartua da. «Aberri» hitza erabiltzen zuen Ipar Euskal Herrikoentzat, aberri erreferentzia Euskal Herria zela zehaztuz. Hori ere, diskurtso abertzalearen parte zen.

Paris 'an, Guda-Osakuntza k erabaki du, uri artan eta inguruban erkitzen diran euzkotar gudamutil zauritubak, etxe batian orok elkarrekin jartzia.

Eritegi au dago Orly deritzayon jauregi eder eta aundi batian, leku agerra ta zugazti zabalez inguratuba.

Gure anai gixaxuak orrela obeki egongo dira, beren aberriyataz aberri-elez itz egin dezkela.

Fevrier guda nau siyak lortu omen du Eudal-Eritegi au jartzia. [...] Jauna k sariztuko al diyo gure abenkidei egin diyen on ori⁷².

Euskal gudari zaurituak elkarrekin eta leku berean egotea komentatzen zuen artikulu horretan. Euskaldunen elkarretaratze hori begi onez ikusten zuen Kirikiñok. Ohargarri da «beren aberria» aipatzen zuela artikulu horretan. Kirikiño kazetari abertzalearentzat, hain segur, inportantea zen aberri berekoak beren aberriaz mintzatu ahal izatea. Baina hori, ikuspegi abertzaletik. Pentsa daiteke, bistan denez, euskaraz eta Euskal Herriari buruz mintzo zirela; baina aberri kontzientziarik ba ote zuten nekez erran daiteke.

Kirikiñok lau esaldiren barnean, hiru aldiz aipatu zuen euskal aberriaren erreferentzia: lehenik, euskaldun horiek «euzkotar» gisa aurkeztuz; bigarrenik beren aberriaren aipamena eginez, eta hirugarrenik, «gure abenkideak» aipatuz. *Euzkadi*-k horrekin erakusten zuen, berriz ere, zazpi herrialdeak aberri beraren parte ikusten zituela.

Hurrengo pasarteak ere erakustera ematen du euskal gudariak Euskal Herriarengan zuketen atxikimendua:

Laburdi'tarr eta xubero'tarren dantz ederrak txalotu zituzten eta dantzaririk bikañena ogei laur lekoko begi gorridun urreakiñ saritu.

Dio ene adixkide izperkari Saint-Pierre, Azparne ko Belgundari maiteak, txoragarrien

txoragarriaz, negarra zeriotela abestu zituztela euzkel eresi eztiak oroituz Euzkelerriaz, ill zitzazkien gudalkidietaz eta zituzten galzoriaz Jainkoari otoi egiñaz.

Guk ere, irakurlea, otoi dagiogun gure anai orietaz⁷³.

Pasarte horretan ez da hainbeste ageri aberriaren ganako erreferentzia; baina euskal nortasunaren bai. Euskal gerlariak bihotzez euskaldunak zirela ulertzeraz ematen du kontakizun horrek, euskal kantuak negarrez kantatzearen eta Euskal Herriaz oroitzearen aipamena eginez.

Ondoko lerroetako anekdotaren irakurketa biziki adierazgarria egin zuen Kirikiñok. Anekdotaz polita da, eta anekdotaz soila izateaz gain, Ipar Euskal Herriak Frantziarekiko zuen egoera erakusten du. Eta anekdotaren irakurketak, euskal abertzaleek zuten iritzia.

Sara, Laburdi ko osalari Elizagarai pantzetarren gudamutil dabillanak idatzi dau, lubagi edo trintxeran gau batian geldiz egozanian, Iriarte deritxon abots zoliz ederridun euzkotar gudamutilla asi zala gure abestijak erabilten, eta unerikunera, lubagijan aurkitxen ziran beste euzkeldunak laguntzen eutsoela danak batera. Berez ederrak ixanik abestijak, gabezko ixillian eta eztarri zolizjak abesturik, bijotz-bijotzeraño sartzen dira.

Pantzetarren lubagi onetatik 50 neurgin (metro) arantzago eguan beste lubagi bat doistarrena. Onek entzuten eguzan ixil-ixilik, eta euzkeldunak amaitu ebenian abestijaldia, doistarrak txalo andijak jo eutsiezan. Eta ordañez, Marseillaise

abestu eben eurak, len abestu ebenak pantzetarrak ixan ziralakuan. Orduban, pantzetarrak jo ebezan txaluak. Euzkeldunentzako zan ordaña eurak arrapatu eben⁷⁴.

Kirikiñok kontatzen zuen nola lubakietan ziren euskaldun batzuk euskaraz kantuz hasi ziren, beren boz ederrekin. Denek isil-isila entzun zuten, alemanek ere bai. Kantua bukatu zutenean, alemanak txaloka hasi ziren eta gero *Marseillaise* Frantziako himnoa kantatu zuten, ordainez. Horrek erakusten du, batetik, alemanentzat, parean zituzten guziak frantsesak zirela, eta ez zutela ñabardurarik egiten. Euskaldunak frantses gisa agertu ziren, nahiz eta euskaraz kantatu. Horrek, *Eskualduna*-k markatzen zuen ildo berresten du.

Baina Kirikiñok egiten zituen komentarioek euskal abertzaletasunaren ikuspegia erakusten dute. Batetik, *Marseillaise*-a, euskaraz kantatu zutenak frantsesak zirelakoan kantatu zutela erranez, «zirelakoan» horrekin erakusten zuen, beretzat, euskal gudariak ez zirela frantsesak. Aitzineko lerroetan aipatua berretsi zuen. Bigarrenik, euskaldunek ukan behar zuten saria frantsesek ukan zutela komentatzean, Kirikiñok argi eta garbi egin zuen bereizkuntza: euskaldunak ez ziren frantsesak, eta frantsesak ez ziren euskaldunak.

Euzkadi-k ongi bereizten zuen euskaldun izatea eta frantses izatea gauza desberdinak zirela. Baina ez zen konformatzen Ipar eta Hego Euskal Herrikoak aberri beraren parte zirela erratearekin. Ipar Euskal Herriko euskaldunek Frantziarekin deus ikustekorik ez zutela ere aditzera ematen

zuen, eskal gerlariak beste herri batentzat hiltzen ari zirela komentatuz.

Que Jaun Goikoa proteja á nuestros pobres hermanos, destinados según parece, por la fatalidad, á dar su sangre generosa por otros pueblos⁷⁵.

Esaldi horrek dio euskaldunek beren odola, eskuzabaltasunez, beste herri batzuen alde emanen zutela. Beste herri batzuen alde ematen bazuten, erran nahi zuen ez zutela beren herriaren alde ematen. Hain segur, Frantziaren alde emanen zuten odola. *Eskualduna*-k, «beren herriaren alde» hiltzea aipatzen zuen, Frantziaren alde hiltzea errateko. Artikulu hau idatzi zuenarentzat, argi zen, Frantzia ez zela haien herria. Eskuzabaltasunaren ideiak, hori berresten du.

Komentario bat merezi du «fatalidad» hitzak ere. Odola beste herri baten alde ematea halabehar txar gisa aurkezten zuen *Euzkadi*-k. Horrekin gehiago erakusten zuen euskaldunek Frantziarengan zuten arrotasuna, *Euzkadi*-ren begietan.

Ondoko lerroetan artikulu zatiak oraino argiago adierazten du Frantziarenganako arrotasun hori:

Nuestros hermanos en raza, en propia historia patria, los nabarros de la sexta merindad, son llevados á pelear por el triunfo de la bandera de los galos.

[...] Perdidos en los batallones franceses que luchan contra el imperialismo germánico, los nabarros de la sexta merindad darán su sangre generosa.

[...] Triste condición la de nuestro pueblo; tan triste, que si la fe en le triunfo y en las energías de la raza no nos asegurase un bello porvenir, habríamos de creer en un sino maléfico condenando al pueblo vasco á servir y defender siempre las aspiraciones, necesidades y egoismos de países extranjeros⁷⁶.

Zati honetako azken bi lerroek berresten dute, *Euzkadi*-rentzat, Ipar Euskal Herriko euskaldunek «herri arrotzen helburuak, beharrak eta egoismoak» defendatu behar zituztela. Zati gogorra da Frantziari begira, «egoismo» hitza bereziki. Euskaldunak «frantsesen bandera» defenditzera zoazten, ez beren bandera, *Euzkadi*-ren iritziz. Are gehiago, frantses gudarien erdian «galduak» zirela gehitzen zuen artikulua horrek.

Frantziaren edo herri «arrotz» baten alde borrokatze hori zer bait «mardarikatu» gisa aurkezten zuen *Euzkadi*-k. Borrokatzera «kondenatuak» izateak ere kutsu biziki negatiboa zuen. Horrekin ageri da, *Euzkadi*-rentzat, euskaldunek Frantziaren alde gerla egitea ez zela hautu bat, inposatze bat baizik; beraz, frantses izatea ez zen euskaldunen hautu bat, inposatze bat baizik, beti ere *Euzkadi*-ren iritziz.

Pasarte horretan berretsi zuen *Euzkadi*-k, zazpi herrialdeek aberri bakarra osatzen zutela. Baxenabarreko euskaldunak «Nafarroako seigarren merindadeko» herritar gisa aurkezten zituen, aberri bakarreko eta historia bereko herritar gisa aurkezten zituen.

13. Bi nazio ikuspegi

Euskal Herriko prentsak 1914-1918ko Gerla Handia nola aipatu zuen xeheki aztertzeak berak lan handia eskatuko luke, hainbeste baitira aldizkariak eta bakoitzaren ildo editorialak. Lan hau lehen hilabeteetara eta bi aldizkaritara mugatu da. Hala ere, azterketa xume horrek argazki interesgarria ateratzeko balio du: gerlari, Frantziari, Euskal Herriari eta euskaldun izateari buruzko bi ikuspegi arras kontrajarri izan ziren Hego Euskal Herriko prentsa abertzalean eta Ipar Euskal Herriko euskal prentsa girstinoan. Laburbilduz, Ipar Euskal Herrian, *Eskualduna* astekariak frantses nazionalismoaren sentimendua zabaldu zuen; eta, alderantziz, Hego Euskal Herrian, *Euzkadi* egunkariak, euskal abertzaletasunaren ikuspegitik lantzen zuen gerla mundialaren aipamena.

Gerlari buruz jarrera kontrajarria zuten bi aldizkari hauek. *Eskualduna*, nahiz eta funtsean gerla gauza triste gisa ikusten zuen, mezu gerlazaleen zabalitzen aritu zen: gerlako berriak berak gerlako hitzekin, hitz gogorrekin, aipatuz; gerla horretan arras inplikaturik agertuz, Alemaniaren kontra eta Frantziaren alde; gerlaren zoazen euskaldunei kemena emanaz, gerlaren izugarrikeria desdramatizatuz eta zauriaren mina erlatibizatuz; desertoreen kontra mintzatuz. *Eskualduna* gerlaren alde agertzen zen, frantses on batzuk bezala. *Euzkadi* egunkariak, aldiz, nahiago zukeen gerla hori ez balitz lehertu. Gerlari buruz

idazterakoan, herrialde neutral baten gibelapenarekin, gerla zerbait larri gisa eta saihestu beharreko zerbait bezala aurkezten zuen. Halaber, gerla Euskal Herritik urrun nahi zuen, horrek Euskal Herrira sufrimendua ekar zezakeelako. *Eskualduna*-k sufrimendua baino gehiago heroismoa azpimarratzen zuen bezala, *Euzkadi*-k engaiamenduaren gainetik ezartzen zuen horrek eragiten zuen atsekabea. *Eskualduna*-k mobilizazioa zerbait eder bezala aipatzen zuen, bihotz altxagarri izan balitz bezala, etxean bakarrik gelditzen zirenen engaiamendua bera (etxeko lanak egitea etxeko gizonak falta zirelarik) ere txalotuz; *Euzkadi*-k mobilizazioaren ondorioz Ipar Euskal Herriko herriak eta etxaldeak hutsik gelditzen zirela drama gisa kontatzen zuen.

Euzkadi-k ez zuen nahi gerlarik, horrek Euskal Herriari kalte eginen ziolako beldurrez. *Eskualduna*-k Ipar Euskal Herria Frantziaren parte ikusten zuenez, naturaltzat zeukan gerla horretan euskaldunak ere inplikatzeari. Batek Euskal Herria ikusten zuen, besteak Frantzia. Horrek berak esplicitatzen zuen gerlari buruz zuten ikuspegi kontrajarria. Halaber, *Euzkadi* egunkariak beste argudio bat ere bazuen gerlan sartzearen kontra izateko: ez zukeen nahi Espainia Alemaniaren alde gerlan has zedin, horrek erran nahi zukeelako euskaldunak euskaldunen kontra ariko ziratekeela gerlan. Horrelakorik ez zuen nahi *Euzkadi*-k. Hor ageri da *Euzkadi*-ren abertzaletasun.

Bai *Euzkadi*, bai *Eskualduna* alemanen kontra ziren. Hala ere, *Euzkadi*-k alemanen kontra idazten

zituenak ez ziren *Eskualduna*-ren heinera heltzen. Horiek hola, Alemaniaren kontrako jarrera ere motibazio desberdinek eragiten zuten. *Eskualduna*-k Frantziaren etsai handi gisa aurkezten zuen Alemania; eta Frantziaren etsai handia zelako zen *Eskualduna* ere, errotik Alemaniaren kontra. *Euzkadi*-k, aldiz, herri ttipi baten ikuspegitik aipatzen zuen Alemaniaren kontrako iritzia, hots, Belgika estatu ttipia inbaditzea edo Austria-Hungariak Serbia mehatxatzea gogor gaitzesten zituen, hain segur, herri ttipi bateko aldizkari gisa, bere burua Belgikak eta Serbiak pairatzen zutenarekin identifikatua ikusten baitzuen.

Horretan ere ageri da *Eskualduna*-k bere burua frantses gisa kokatzen zuela, eta *Euzkadi*-k euskaldun gisa.

Bai *Euzkadi*, bai *Eskualduna*, Frantziak eta Ingalaterrak irabaztearen alde zeuden; eta, beharbada, arrazoi berengatik. *Eskualduna*-k Frantziak irabaz zezan nahi zuen, bere burua eta Ipar Euskal Herria Frantziaren parte ikusten zituelako, eta Frantziak galduz gero, Ipar Euskal Herriak ere galduko zukeela pentsa zezakeelako. *Euzkadi*-k ez zuen hainbeste erakusten Frantziaren eta Ingalaterraren aldera zuen atxikimendurik. Baina bi herrialde horiek irabaz zezaten nahiago zuen, Euskal Herriko interes ekonomikoentzat hobe izanzen zelako. Beharbada biek erakusten zuten Euskal Herriarenganako kezka; baina baten partetik abertzaletasuna zen, bestearen partetik ez.

Euzkadi-ren eta *Eskualduna*-ren erreferentzia nazionalak ez ziren berak: Euskal Herria zen

lehenarena, Frantzia bigarrenarena. Hor da desberdintasun handiena. *Eskualduna*-rentzat, gerlara zoazen euskaldunak frantsesak ziren, Frantzia izendatzeko «gu» erabiltzen zuen, Frantziaren alde hiltzea, «herriarentzat» hiltzea zela idazten zuen, Frantziaren etorkizunaz kezkatu zirela zegoen, frantses izatearen sentimendua errotik sartua zuen edo sarrarazten zuen.

Gutziz desberdina zen *Euzkadi*-ren ikusmoldea. Egunkari abertzale honek gerlara zoazen euskaldunak «anai» edo aberkide gisa aurkezten zituen, nehola ere ez frantses gisa. Desberdintasun agerikoena da, *Eskualduna*-k «herriarentzat hiltzen» zirela erraten zuenean, *Euzkadi*-k «herri arrotz baten alde» hiltzen zirela idazten zuela. *Eskualduna*-rentzat, Ipar Euskal Herria Frantziaren parte zen, eta beraz, Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantsesak ziren; *Euzkadi*-rentzat, aldiz, Ipar Euskal Herria Frantziaren menpe zegoen, eta Ipar Euskal Herriko euskaldunak ez ziren frantsesak.

Argazki horrek gaur egungo egoera ulertzen lagun dezake. Euskal abertzaletasunaren heina historikoki arras desberdina izan da Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian; eta gaur egun ere arras desberdina da. Ipar Euskal Herriko gizartearen gehiengoak Frantzia dauka erreferentzia, eta Hego Euskal Herriko biztanleen zati handi batek Espainiatik bereizi nahi du. Ikusten da hori ez dela oraingoa; eta oraino hein handiago batean gertatzen zela 1914ean.

Ikusten da, halaber, Hego Euskal Herriko abertzaleentzat (jeltzaleentzat), Euskal Herriaren

erreferentzia zazpi herrialdeetan egikaritzen zela: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa. Hots, jeltzaleek Euskal Herriarentzat zuten asmoa ez zen Hego Euskal Herrira mugatzen.

Euzkadi-rentzat, Ipar Euskal Herriko euskaldunak Pirinioez haraindiko euskaldunak ziren, eta *Eskualduna*-rentzat Hego Euskal Herrikoak Espainia aldeko euskaldunak ziren. Hor ere ageri da bakoitzaren irizpide nazionala, *Euzkadi*-k berriz ere Euskal Herria hartzen zuen erreferentzia gisa, eta *Eskualduna*-k, aldiz, orduko Estatuaren egituraketa: Espainiari eta Frantziari zilegitasuna ematen zien.

Eskualduna-k Lehen Gerla Mundiala nola aipatu zuen xehekiago aztertuz, gerla horrek Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantses sentiarazteko bete zuen funtzioa zein handia izan zen agerian geldituko litzateke. Kasu orotan, hori ere bere tesuinguruan kokatu behar litzateke; pentsatzekoa da *Eskualduna* orduko gizarte baten bozeramaile-edo zela. *Eskualduna*-k berak zabaltzen zuen mezuak baino inportantzia gehiago bide zuen, *Eskualduna* egiten zuen jende motak, bereziki apezek. *Eskualduna* irakurria zen, baina apezek herrietan zuten eragina zein handia zen ikusiz, pentsa daiteke *Eskualduna*-ren lerroetan idazten zutena ahoz erraten zutela beren parroketan edo predikuetan. Horregatik ere da interesgarria *Eskualduna*-ren ildo editorial hori eta mezu horiek xehekiago barnatzea, *Eskualduna*-tik harago hedatuak zirelako.

Lan honek ez du ikertu *Eskualduna* zergatik ote zen hain frantses. Baina 1914ean Euskal

Herriaren batasun instituzionalari buruz eman zuen bere iritzia zinez interesgarria da. Ez da zuzenean gerlari lotua, baina *Euzkadi*-ren eta *Eskualduna*-ren jarrera kontrajarria ulertzeko balio du, baita ere *Eskualduna* Frantziaren alde zergatik jarri zen ulertzeko. *Eskualduna*-k ez zion uko egiten euskaltasunari; alderantziz, euskaldun erroei, euskal nortasunari eta euskarari arras atxikia zitzaiola adierazten zuen, baita ere Hego Euskal Herriko euskaldunenganako adiskidetasunari edo anaitasunari. Frantziarenganako identifikazioa edota atxikimendua, *Eskualduna*-ren partetik, ez zen, menturaz, hain jarrera frantsesa; izatekotan, jarrera pragmatikoagoa zen: estatu ttipi batek estatu handiei ez ziezaiekeela buru egin uste zuen *Eskualduna*-k, Euskal Herri batu eta independente bat estatu handiek berehala suntsi zezaketela uste zuen. Azkarrago sentitzeko, Frantziaren baitan ikusi nahi zuen *Eskualduna*-k Ipar Euskal Herria; Frantziak indar hori ematen ziolako zen *Eskualduna* Frantziaren baitan segitzearen alde.

Hor balitzateke, nahi izanez gero, gai hori xehekiago aztertzeke bidea. Gerlatik harago, zergatik zen *Eskualduna* hain Frantziaren aldekoa edo zergatik ez zen euskal abertzalea? Ttipitasun konplexuaren hipotesia barnatu nahi duenarentzat, *Eskualduna*-k bide handia eskaintzen du.

Baina bada beste atal bat ere lan honek batere aipatu ez duena, aipatzen hasiz gero honen heineko lana merezi bailuke horrek berak. Hala ere, lotura bat aurki dakioke orain landutakoarekin: *Eskualduna*-k gerla horren bitartez goraipatzen

zuen Frantziaren batasuna zen. Ordu arte Errepublikaren aldekoen eta laikotasunaren kontra-koen arteko gatazka biziki bizia zen Frantzian. *Eskualduna*-k Errepublikaren aldekoak kritikatzin zituen, baita laikotasuna ere. Hala ere, iduri luke gerlak zatiketa hori izozteko balio izan zuela, has-
tapenean bederen. *Eskualduna* kontent zen zatike-
taren izozte horregatik; baina, aldi berean, giristi-
notasunaren aldeko propaganda handia egiten
zuen gerlaren bitartez.

Eskualduna-k gerlari izari giristinoa eman-
ez («Jainkoa alde dugu» gisako esaldiak denbora
guztian errepikatuz), Jainkoa Frantziaren alde zela
erranez, gerla erabiltzen zuen giristinotasunaren
aldeko mezuak zabaltzeko, Frantzian giristina-
suna berriz indarrean ezartzea bilatzeko.

Frantziaren laikotasunak kritikak eragin zi-
tuen, besteak beste Espainian, karlisten artean.
Eskualduna-ri arras gaitzigarri iruditu zitzaion
giristino batzuk Alemaniaren alde jartzea, Frantzia
laikoegia zelakoan. Merezki luke aztertzeak ea
Frantziaren alde jartzea eta giristinotasunaren
sustatzaile izatea lotuak ziren ala ez. Edo aztertzea
zerk eragiten zion besteari: ea Frantziarenganako
atxikimendua lehenik zetorren, eta beraz Frantzia-
renganako atxikimendua hain zuen handia non
Frantzia giristino erreferente bat zela frogatzeko
ahalegina egin nahi zuen; ala ea giristinotasuna-
renganako lehentasuna hain handia zuen non,
Frantziako hiritar gisa, Frantziaren gorai-
patzeaz baliatzen zen giristinotasuna bera gorai-
patzeko eta gorrien eta xurien arteko gatazkan,
xurien aldeko propaganda handia egiteko.

Laburbilduz, eta bururatzeko, lan honetatik ateratzen den ondorioa da Ipar Euskal Herrian euskal kontzientzia abertzalea ez zela ia batere existitzen, *Eskualduna*-ren arabera; eta Hego Euskal Herrian arras iratzarria zela. Horrek eragin handia du gerla mundiala aipatzeko mementoan. Ikusten da gerla horrek eragin handia izan zuela Euskal Herriaren zatiketa areagotzeko, eta euskal abertzaletasuna Pirinioen alde batean bestea baino emekiago garatzeko.

OHARRAK

- ¹ Audoin-Rouzeau Stéphane et Becker Annette, *La Grande Guerre 1914-1918*, Gallimard, Paris, 1998.
- ² «Gerla mundiala da: ez dago lurralde bakar bat ere hunkia ez denik».
- ³ Ferro Marc, *La Grande Guerre*, Gallimard, Paris, 1968.
- ⁴ Menendez Pidal Ramon, *Historia de España XXXVIII. La España de Alfonso XIII. El estado y la política (1902-1931)*. Espasa Calpe. Madrid. 1995. 328-336 orr.
- ⁵ Irigarai Pablo Fermin *Larreko, Lekukotasuna*, (Iñaki Caminoren edizioa), Euskal Editoreen Elkarte, 1992.
- ⁶ Elissalde Jean *Zerbitzari, LVIIa gerlan*. Alberdania, 1995.
- ⁷ Saint-Pierre Jean Anxuberro, *14eko Gerla Handia*, Klasi-koak, 1998.
- ⁸ Barbier Jean, *Piarres*
- ⁹ Jean Barbier-ri buruz xehetasun gehiago: Onaindia Santi, *Euskak literatura IV*, Etor, 1975.
- ¹⁰ Xipri Arbelbide, *Manex Hiriart-Urruty*, Bidegileak, 1992.
- ¹¹ Ibid.
- ¹² *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a. «Irakurtzaleari» artikulutik.
- ¹³ Xarriton Piarres, *Jules Moulier 'Oxobi'*, Bidegileak, 1990.
- ¹⁴ Elissalde Jean *'Zerbitzari', LVIIa gerlan*, Patri Urkizuren edizioa, Alberdania, 1995.
- ¹⁵ Saint-Pierre Jean *Anxuberro, 14eko Gerla Handia*, Piarres Xarritonen edizioa, Klasikoak, 1998.
- ¹⁶ Diaz Noci, Javier. Nafarroako unibertsitatean eman hitzaldi batean: «Euskarazko kazetaritza XX mendearen hastapenean».

- 17 Etxebarria Igone, *Ebaristo Bustintza 'Kirikiño'*, Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritza, 1992.
- 18 Bustintza Ebaristo *Kirikiño, Guda Nagusia (1914-1918)*, Bilbo, 1989.
- 19 Xarriton Piarres, *Jean Saint-Pierre 'Anxuberro' (1884-1951)*. Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaitza, Gasteiz, 2003.
- 20 *Eskualduna*, 1914ko irailaren 18a. Marne-ko batailari buruzko artikulutik hartu zatia.
- 21 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 16a. «Gerlarien berri» atalaren baitan, Zerbitzari-ren kronika.
- 22 *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 6a.
- 23 Cazals Rémy, «1914-1918. Oser penser, oser écrire», *Génèses*, n° 46, mars 2002, p. 26-43.
- 24 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 9a.
- 25 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 16a, «Gerlarien berri» ataletik.
- 26 *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 20a, «Bachenárre aldetik» artikulutik.
- 27 *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 13a, «Gerlarien berri» ataletik.
- 28 Cazals Rémy, «1914-1918. Oser penser, oser écrire», *Génèses*, n°46, mars 2002, p. 26-43.
- 29 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 2a, Hazparneko berrien ataletik.
- 30 *Eskualduna*, 1914ko azaroaren 13a.
- 31 *Eskualduna*, 1914ko irailaren 11. «Zenbat soldado?» artikulutik hartua.
- 32 *Eskualduna*, 1914ko irailaren 18a.
- 33 *Eskualduna*. 1914ko agorrilaren 7a.
- 34 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 16a. «Gerlarien berri» ataletik, Zerbitzari-ren kronika zati bat.
- 35 *Eskualduna*, 1914ko irailaren 18a. «Hilak» artikulutik.
- 36 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 9a. «Clément Monge» artikulutik. Clément Monge *Eskualduna*-ko laguntzailea zen,

- eta gerlara joan zen. Haren hil berria ematen zuen artikulutik hartu esaldia da.
- 37 Pérès Hubert, «Identité communale, république et communalisation. A propos des monuments aux morts des villages», in *Revue française de science politique*, 1989, Vol. 39, n° 5, p. 667.
- 38 Ibid., p. 669.
- 39 *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a. «Orok bat» artikulutik.
- 40 *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 7a. «Biba Eskual-herria» artikulutik.
- 41 *Eskualduna*, 1914ko agorrilaren 21a. Atharratzeko berrien ataletik.
- 42 Etcheverry-Aintchart, Peio. «Le Pays Basque et les tentatives de construction nationale», in Goyhenetche Manex, *Histoire générale du Pays Basque Tome V. Le XIXe siècle: 1804-1914*. Elkar, Baiona, 2005. 280. orr.
- 43 GOYHENETCHE Jean, «Les origines sociales et historiques de l'association Eskualzaleen Biltzarra» in *Processus sociaux idéologies et pratiques culturelles dans la société basque*, Pau, Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1985. 82. orr.
- 44 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 23a, «Frantzia eta Espainia» artikulutik.
- 45 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 30a, «Alemanaren adiskidantza» artikulutik.
- 46 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 30a, «Alemanaren adiskidantza» artikulutik.
- 47 Diaz-Plaja Fernando. *La España política del siglo XX. En Fotografías y documentos. Del arranque del siglo a la Dictadura (1900-1923)*. Plaza & Janes SA. Barcelona, 1970
- 48 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 30a, «Alemanaren adiskidantza» artikulutik.
- 49 *Eskualduna*, 1914ko urriaren 23a. «Frantzia eta Espainia» artikulutik.
- 50 Etcheverry-Aintchart, Peio. «Le Pays Basque et les tentatives de construction nationale», in Goyhenetche Manex,

Histoire générale du Pays Basque Tome V. Le XIXe siècle: 1804-1914. Elkar, Baiona, 2005. 276. orr.

- 51 *Eskualduna*, 1914ko irailaren 18a. «Hala beharra» artikulutik.
- 52 *Euzkadi*, 1914ko uztailaren 27a. «Atzerri» artikulutik hartua.
- 53 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 25a. «Gudea» artikulutik hartua.
- 54 *Euzkadi*, 1914ko uztailaren 27a. «Enemigos de la enemistad franco-inglesa» artikulutik.
- 55 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 8a. «Gudu negarr miñak» artikulutik.
- 56 *Euzkadi*, 1914ko uztailaren 27a. «Enemigos de la enemistad franco-inglesa» artikulutik.
- 57 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 11. «Ante la guerra europea. Por *Euzkadi*» artikulutik.
- 58 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 26a. «Guda» artikulutik.
- 59 *Euzkadi*, 1914ko uztailaren 27a. «Enemigos de la enemistad franco-inglesa» artikulutik.
- 60 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 26a.
- 61 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 14a. «Belgika errukigarria» artikulutik.
- 62 *Euzkadi*, 1915eko urtarrilaren 22a. *Euzkadi*-k *Doixtarra* deitzen die alemanei eta *Ingalanda* Inglaterrari.
- 63 *Napartarra*. Pantzizta erraiten du frantsesen aldekoentzat.
- 64 *Euzkadi*, 1915eko martxoaren 1a. «Dardaneleta» artikulutik.
- 65 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 11. «Ante la guerra europea. Por *Euzkadi*» artikulutik.
- 66 *Euzkadi*, 1914ko uztailaren 27a.
- 67 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 25a. «Euzko Abendaren elez» saileko «Be-Naparra, Laburdi ta Zuberoan» artikulutik.
- 68 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 8a. «Gudu negar miñak» artikulutik.
- 69 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 8a. «Gudu negar miñak» artikulutik.

- 70 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 11. «Los vascos a la guerra» artikulutik.
- 71 *Euzkadi*, 1914ko abenduaren 12a. «Euzko Abendan elez» saileko «Naparra 'tik» artikulutik.
- 72 *Euzkadi*, 1915eko urtarrilaren 12a. «Euzkotarr zaurituak elkarrekin» artikulutik.
- 73 *Euzkadi*, 1915eko urtarrilaren 13a. «Euzkeldun gudarien jaia» artikulutik.
- 74 *Euzkadi*, 1915eko urtarrilaren 4a. «Doistarrak gure abesti-jei txaloka» artikulutik harua.
- 75 *Napartarra*, 1914ko agorrilaren 11. «Los vascos a la guerra» artikulutik.
- 76 *Euzkadi*, 1914ko agorrilaren 18a. «Los nabarros a la guerra» artikulutik.

BIBLIOGRAFIA

Aldizkariak

Eskualduna, Baiona, 1914.

Euskalerrriaren Alde, Donostia, 1914.

Euzkadi, Bilbo, 1914-1915

Le Journal de Saint-Palais, Donapaleu, 1914.

Napartarra, Iruñea, 1914.

Liburuak

ARBELBIDE, Xipri, *Manex Hiriart-Urruty*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1992.

AUDOIN-ROUZEAU, Stéphane et Becker Annette, *La Grande Guerre 1914-1918*, Gallimard, Paris, 1998.

BARBIER, Jean, Piarres II (Ane Loidiren edizioa), Euskal Editoreen Elkarte, 1992.

BILBAO, J.B. *Batxi*, *Hau mundu arrano hau* (Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarriren edizioa), Susa, 1997.

BUSTINTZA, Ebaristo *Kirikiño*, *Guda Nagusia (1914-1918)*, Bilbo, 1989.

DIAZ-PLAJA, Fernando, *La España política del siglo XX. En fotografías y documentos. Del arranque del siglo a la dictadura (1900-1923)*. Plaza & Janes SA, Barcelona, 1970.

- ELISSALDE, Jean *Zerbitzari, LVIIa gerlan*, Alberdania, 1995.
- ETCHEPARE, Jean, *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal gaiak*, Elkar, 1984.
- , *Jean Etchepare Mirikuaren idazlanak. III*, Elkar, 1988.
- , *Jean Etchepare Mirikuaren idazlanak. IV*, Elkar, 1992.
- ETXEBERRIA, Igone, *Ebaristo Bustintza Kirikiño, Bidegileak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1992.
- FERRO, Marc, *La Grande Guerre*, Paris, Gallimard, 1990 [1ère éd. 1969].
- GARAT, Jacques, *Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le cas des cantons basques*, DEA d'histoire, Paris, EHESS, 1983.
- IRIGARAI, Pablo Fermin *Larreko, Lekukotasuna* (Iñaki Caminoren edizioa), Euskal Editoreen Elkarte, 1992.
- LAGREEN, Michel, *Les parlers de la foi, religion et langues régionales*, Rennes, Presses Universitaires de Rennes, 1995.
- MENENDEZ PIDAL, Ramon, *Historia de España XXXVIII. La España de Alfonso XIII. El estado y la política (1902-1931)*, Espasa Calpe, Madrid, 1995.
- MITXELENA, Koldo, *Historia de la literatura vasca*, Madrid, Minatauro, 1960.
- SAINT-PIERRE, Jean *Anxuberro, 14eko Gerla Handia*, Klasikoak, 1998.

XARRITON, Piarres, *Jean Saint-Pierre Anxuberro (1884-1951)*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 2003.

—, Piarres, *Jules Moulier Oxobi*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 1990.

Artikuluak

CAZALS, Rémy, «1914-1918. Oser penser, oser écrire», *Génèses*, n° 46, mars 2002.

ETCHEVERRY-AINCHART, Peio, «Le Pays Basque et les tentatives de construction nationale», dans Goyenetche Manex, *Histoire Générale du Pays Basque Tome V. Le XIX^e siècle: 1804-1914*, Elkar, Baiona, 2005.

GARAT, Jacques, «Les Basques et l'institution militaire au XIX^e siècle», dans Goyenetche Manex, *Histoire Générale du Pays Basque Tome V. Le XIX^e siècle: 1804-1914*, Elkar, Baiona, 2005.

GOYHENETCHE, Jean, «Les origines sociales et historiques de l'association Eskualzaleen Biltzarra», dans Bidart Pierre (dir.), *Processus sociaux idéologies et pratiques culturelles dans la société basque*, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Pau, 1985.

LARA ORUNO, D., «Les soldats «créoles» dans la Grande Guerre», *Matériaux pour l'histoire de notre temps*, 1998, n° 49-50, pp. 69-71.

PÉRÈS, Hubert, «Identité communale, république et communalisation. A propos des monuments aux morts des villages», in *Revue de Science politique*, 1989, vol. 39, n° 5, pp. 665-682.

IDEIAK

BILDUMA

1. Fito Rodriguez: *Jerusalem. Xalimen hiria*, 20080
2. Eneko Bidegain: *Gerla Handia, muga sakona*, 2009